

Charles Baudelaire

La Fanfarlo

euskaratzailea: Juan Kruz Igerabide

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Juan Kruz Igerabide.

Euskarazko edizioa: Erein, 1991

Jatorrizkoaren data: 1847

Charles Baudelaire euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=146>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1196>

Zenbait momentutan literaturzale guztiek sentitzen baitute literaturarekiko izuikara, bada, nik ez dut ontzat ematen horientzat —arima libre eta harro horientzat, zazpigarren egunean beti atsedean hartu beharra izaten duten izpiritu makal horientzat— bi motatako emakumea besterik: edo oso gaztea, edo ergela; amodioa ala eltzea. Senideok, adierazi beharrik ba ote daukat horren zergatia?

BAUDELAIRE,

Literaturgile gazteentzako kontseiluak

AMODIOA ALA ELTZEA

Samuel Cramer da gure istorioko pertsonaia nagusia. Eta badu, bai, literaturarekiko izuikararik; edo, beharbada, zoramen hutsa da berea; eta zoramen horrek darama bere arima, libreak diruditen esparruetan barna, harrotasunez mukur, nahiz harrotasun inozo samarra izan berea. Bai, inuzente samarra da Samuel, beginiak gora jirata lebilkeen idaxle erromantikoaren karikatura parodikoa, aldi berean utzia, buhame-

sa eta lotsagabea. Eta Baudelairek ez dio ezarri Samueli ez amorante gaxterik, ez ergelik. Cosmelly andereak hasieran buruarin samarra dirudi, baina gertakariak aurrera doazen heinean garbi agertzen da haren azpijoko zuhurra. Eta, alderantziz, La Fanfarlok, edonon maitaleak zeuzkan dantzarisia lizun horrek, bildotsa dirudi azkenaldera, Samuelekiko sortzen zaion amodioa, amodio inozo eta barregarri samarra, dela eta.

Baudelaire-k 1847an eman zuen argitara *La Fanfarlo*, hogeita sei urte zeuzkalarik. Ordurako poeta madarikatuaren sona irabazia zeukan, garaiko beste idazle batzuek bezala; adibidez, Edgar Alan Poe-k bezala. Aipaturiko urte horretan Poeren lanak itzultzen eta argitaratzen hasia da Baudelaire. Edgar Alan Poe eta Baudelaire-ren artean harreman oso estua aurkitu izan da, nolabait bi leku desberdinetan kokaturiko sentiberatasun berbera bailiran. Ez zuen lagun txarra hartu Baudelairek. Forma mailako perfekzioaren bila, oso era gogorrean, gazterik abiatzen da, Poeren ondotik. Islatzen ari garen garai horretan

oraindik hamar urte falta zaizkio Baudelairek *Les Fleurs du Mal* argitaratu emateko.

Baina *La Fanfarlo* obra ez da, itxuraz behintzat, perfekzio formalaren eredu. Asmo gaiztoz jotzen du Baudelairek Samuel Cramer-en irudia tratatzera; irudi horren tratamendua narrazioa bera baino gehiago axola zaio: zenbaitetan lehenengo pertsona ia inongo betekizunik gabe erabiltzen du, edo ikuspuntua aldatzen, justifikaziorik gabe. Obrak nahiko itxura arina ematen du lehen begirada batean; gazte denborako kaxkarinkeria horietako bat ote den pentsatzen jartzen da bat; alegia, badirudi erromantizismoaren kontrako amorrak eragindako istorio nabarmen samarra sortu ote duen Baudelaire gazteak, gehiegi pentsatu gabe. Halere, azaletik baldar samarra dirudien prosa horren barnean nabaria da literatura modernoan hainbeste hedaturiko hausketarako joera gogorra. Heroe erromantikoa hankaz gora jartzea ez da helburu bakarra; horren zorakeria nabarmenkeriaraino eramanez, estetika erromantikoaren moldeak ere hautsi egin nahi dira nolabait. Baudelairek nobela erromantikoa lardaskatu egin nahi izan duela esan

genezake, haren bizkar barre egin nahi izan duela. Beraz, Baudelairek egin duen lanaren sakontasuna eta perfekzioa aztertzerakoan azalean dirudien baldarkeria hori baino sakonagorago beharko genuke.

Sakoneko puntu horietako bat grinaren eta sentipenen tratamendua litzateke; Baudelaireren tesia hau da: erromantizismoko heroearen grinak eta sentipen bortitz haiek ez ote dira globo puztuak besterik? Hutsalak, alegia? Baudelairek behintzat benetakoak eta sakonak ez balira bezala tratatzen ditu. Samuel Cramer-en sentipenak erabat aldakorak eta funtsik gabekoak dira; Cosmelly anderea itxura egiten ari-tzen da, bere sentimenduen irudi ekibokoak edo badaezpadakoak eskainiz, hondoan bere senarra berreskuratzea baitu helburu (maitasunagatik ala komenentziagatik?, galde genezake; bigarrena, erantzun beharko genuke); La Fanfarloren jokabideak ere jolasetik asko dauka; Cosmelly jaunak, bere aldetik, burges madarikatu baten jokabidea erakusten du. Ez dago sentipen eta grina mailako egiatasunik, pertsonaia guztiak faltsuak dira; kurioski, emagaldu kaskarinak, La

Fanfarlok, erakusten du jokabiderik egiazkoena (puntu bateraino, noski). «Gure grinak egiaz benetazkoak ote dira?», galdetzen du Baudelairek azkenaurreko orrialdean; baina galdera hori erretorikoa da, noski, ezetza zuzen-zuzenean suposatzen duen galdera, obraren kontestuan.

Edgar Alan Poeren eragin zuzenaren ondotik, E.T.A. Hoffmann batek edo Théophile Gautier batek irekia zuten tradizio ironikoa ez da ahaztu behar. Bigarren sakoneko gaia ironia izango litzateke, beraz. *La Fanfarlo* ironia klabean idatzia dago lehen esalditik azkeneraino; obra bere funtsean ironia hutsa da. Ironia hori nolabait exorzismo edo kontrabenenotzat jo dezakegu Baudelairengan; Samuel Cramer-en —Manuela Monteverderen— nabarmenkeria hasiera-hasieratik jartzen da agerian eta horren bizkar barre pozoitsua egiten. Poeta erromantikoaren eredu, honen lehertu beharreko grina, sentipenak eta izaera, bizirik zeuden Baudelaireren garaian eta Baudelaire berarengan ere bai; tradizio horretatik edan zuen dudarik gabe; bera ere kutsaturik zegoen. Samuel Cramerri eginiko arbuioa bere buruari egindakotzat jo dezakegu;

Samuelekiko, hots, bere buruarekiko, ironia garratza erakusten digu, izpiritu mindua. Baina, poetika berri bat osatzeko behar-beharrezko lana du hori Baudelairek; istorio honen azpian poetika baten arbuioa eta lurrematea legoke; erremediorik gabe egin beharreko lantzat dauka hori nonbait, gero, hamar une geroago, *Les Fleurs du Mal* obran erakusten duen poetikak bizia eta gorputza hartuko baldin badu.

Poetika erromantikoaren hausketa horretan gune hauek bereiz ditzakegu:

1— Heroe erromantikoaren arbuioa. Samuel Cramer heroe mota horren karikatura barregarria da, antiheroea nolabait, *le dieu de l'impuissance* deitzen dio Baudelairek. Samuelek heroe erromantikoa izan nahi luke, alde batetik, baina ez dauka ez indarrik, ez barne zuzentasunik, ez sinesmenik, ez argitasunik horretarako. Erromantikoen bideak segitu nahi lituzketen poeta gazteen irudia da (Baudelaire gaztearena bera-rena ere bai, noski); garai horiek joan dira, ordea, eta bide horretatik antzukeria eta dekadentzia besterik ez dator; Samuel poeta dekadentea da, ezbairik gabe. Alde honetatik, Baude-

lairek poeta gazteengan eta bere buruarengan pozoi eta paranoia erromantikoaren kontrako antidotoa sortu nahi izan duela esan genezake, *similia similibus curantur* alegia. Azken batean, *La Fanfarlo* obra poesiari buruzko gogoeta kora-pilotsua besterik ez baita, poetika bat, edo hobe esanda, antipoetika bat.

2— Maitasun erromantikoaren arbuioa. «Penagarriena da —esan zuen— amodio orok beti amaiera okerra izan ohi duela». Erromantizismoaren platonismoak porrot egiten du obran. Madame Cosmelly-rekin zereginik ez dauka Samuelek bide horretatik (aldi berean, hau ere itxura hutsa egiten ari da, benetan sentitzeke); azpian, madame Cosmelly beste interes batzuen atzetik doa. Samuelengan, berriz, esan genezake barne zirrarak baino gehiago lotsagabekeriak eragiten duela, abentura nahiak eta kuriositateak edo sudurluzekeriak. Maitasunaren esparruan, garaile amodio haragikoia irteten da, Samuel eta La Fanfarloren artekoa, izpiritu mailako lotura oso arina delarik (eta hori bi zentzutan gainera: indarrik gabea eta buru-arinkeriaz betea); oso esanguratsua da maitasun hori dan-

tzarisa kaskarin batekin lotua izatea. Esparru berean, eta bigarren mailan, Cosmelly senar-emazteen arteko maitasun konbentzionala eta interesatua legoke.

3— Maitalearen irudiaren apurketa. Maitale erromantikoa, zurbila, ia airezkoa, fina, idealizatu, badirudi Cosmelly anderearengan gauzatze-ra doala hasiera batean. Baina, bide hori utzi, emakume konbentzional bihurtu, eta erabat kontrako bidea hartzen da La Fanfarloren eskutik: honen koloreak biziak dira, erabiltzen dituen arropa eta bitxiak, nabarmenak, aparatositatez beteak; zingara baten antza leukake: azalaren kolore beroa, gorputz mardula; haragiaren lurrun lizuna gehiago somatzen zaio, izpirituaren lurrun zurbila baino. Azkenean, gainera, irudi mardul bera ere itsusituz joango zaio: «Dantzari-sa, berriz, egunetik egunera gizenagotzen ari da; edertasun lodia bilakatu da, garbia, gizona, gorritua».

4— Faltsukeria da nagusi. «Izaeraz noble eta eder izan ezin eta horregatik geure burua itxuraldatu dugu». Faltsua da Samuel Cramer eta eskrupulorik gabea. Faltsuki jokutzen du honekin

Cosmelly andereak: «Hitz batez, emakumeak koketeria erabili zuen bere onerako». Faltsua da Cosmelly jauna, obran eginkizun gehiegirik ez badauka ere. Nor da, beraz, benetazkoa? La Fanfarlo, noski, hots, garbikeria eta ideal erromantikotatik urrunduen legokeen pertsonaia. Eta honek ematen dio, kurioski, obrari titulua. Baudelaire, osatu nahi duen poetikaren oinarria erakusten ari zaigu. Sinboloak lotura berriak bilatu behar ditu, benetazkoak, estereotipo erromantikotik aldenduak.

Narratzeko erari gagozkiolarik, linealitate tradizionala hausten saiatzen da Baudelaire. Bai gertakizunak, bai pertsonaiak, ez dira zuzenezuzenean garatzen. Teknika horiek nolabait kaos pixka bat sortuko dute testuan. Baudelairek testu horren egitura, linealitate horretatik kanpo, beste elementu batzuetan oinarritzen du; adibidez, joko bikoitzean: alde batetik, Samuel gaiztoa, lizunkoia, asmo okerrez betea, daukagu; bestetik, ordea, arkume baten gisakoa dirudi: Cosmelly anderearekin harremanetan jartzean, hasierako asmo lizunak, senar-emazteen batasuna lortzeko ahalegin bihurtzen dira; La Fanfar-

lorekin, hasieran kazetetatik eginiko erasoaren menpekotasun umila bihurtuko da. Madame Cosmelly eta La Fanfarloren arteko bikoiztasuna ere hortxe dago: batak hasten du obra, besteak amaitzen. Horrelako elementuekin sortzen du obraren egitura Baudelairek.

Narratzaileari gagozkiolarik, nahikoa urrun agertzen da kontatzeko eran. Baina, aldi berean, Samuel Cramer-engandik oso hurbil dago; oso ongi ezagutzen duela dirudi, eta beste guztiak pertsonaia honen ondotik ikusiak dira. Horregatik ere esan daiteke Samuel nolabait Baudelairek nahi ez duen bere buruaren alter-egoa dela; harenganako gorrotoa erakusten du, baina, aldi berean, erruki pixka bat ere nabaritzen zaio: gizajo hori ez du onartzen, baina anaia desbideratua bezainbat maite duela esan genezake. Horregatik egiten zaigu Samuel, aldi berean, arbuigarri eta pixka bat maitagarri ere.

Forma aldetik, trinkotasuna nabaria da kontatzeko eta esaldiak osatzeko eran. Gauzak zuzenki botatzen ditu Baudelairek, askotan prosaren bilakaera gogor-samartuz. Poetaren trinkotasuna, sinboloen pisua dago oinarrian, Bau-

delairek kontakizuna baino gehiago ikuspegia erakutsi nahi baitigu, poetikari buruzko ikuspegia, alegia.

Juan Kruz Igerabide

LA FANFARLO

Samuel Cramer, beste garai batean —erromantizismoaren aro eder hartan— Manuela Monteverde izenez zenbait zoramen erromantiko izenpetu zuen hori, alemaniar baten eta honen emazte txiletar beltzaranaren produktu kontra-jarrria duzu. Jatorri bikoitz honi, erantsi heziketa frantziarra eta ondasun literarioa, eta are gutxiago harrituko zara —ezpada asebeste edo hunkituko— izaera horren katramila arraroez.

Samuelek bekoki garbi eta leiala du, kafe aleen antzeko begi distiratsuak, sudur bihurri eta irrikorra, ezpain lizun eta sentzualak, kokots karratu eta agintezalea; adatsa, berriz, rafaelista izan nahi lukeen horietakoa'. Alfer galanta, handinahi tristea eta zoritxarreko ilustrea da aldi berean, bere bizitzan ideia erdiak besterik izan ez dituen. Bere barnea etengabe argitzen duen alferkeriaren eguzkiak, lurrundu eta jan egiten dio bere erdi-jeinu hori, zeina zeruak emanikoa baitu.

Parisko bizitza ikaragarri honetan nik ezaguturiko erdi-gizon handi guztien artean, Samuelek beste inork baino gehiago alferrik galdu zituen bere lanak. Izaki gaixobera, lilurakorra, haren izaeran argiagoa da poesiaren distira bere lane-tan baino.

Eta goizeko ordu bata aldera agertu izan zait beti, egur-ikatzez eginiko su distiraren eta erlojuaren tik-takaren artean, ezinaren jainko —jainko moderno eta hermafrodita— bailitz; eta ezintasun hori hain da eskerga eta izugarria, ezen epikoa ere bai baita.

Nola irekiaraziko nizkizueke begiak, izaera ilun horren barnera argibetean begiratzeko aukera izan dezazuen, haren irudimena, bakar-dadea eta alferkeria, absolutuaren tamainakoak baitira? Izaera ilun hori distirarik indartsuenarekin nahasirik darama: aldi berean alferra eta ekiten badakiena; noiznahi proiektu zailak hasi eta porrotik barregarrienen biltzailea; paradoxak harengan inozotasunaren neurriak hartzen ditu.

Samuelen arrarotasun ezagunenetarikoa, benetan miresten zituenen parekoa sentitzea zen. Liburu eder bat grinaz leitu ondoren, nahi

gabe, honako ondorio hau etortzen zitzaion burura: «hona nirea izateko bezain ederra!», eta hortik «nirea da beraz» pentsatzera ez dago pausu ttiki bat besterik.

Gaurko mundu honetan horrelako izaerak uste baino maizago agertzen dira: kaleetan, ibilbide publikoetan, edategietan eta alferkeriaren egoitza orotan, izaki horiek txingurriak bezainbat ugaltzen dira. Hain ongi identifikatzen dira eredu berriarekin, ezen beren esku propioetatik sortua dela uste matera iristeko ez baitzaie asko falta. Hor ikusiko dituzue gaur Plotinoren nahiz Porfirioren orrialde mistikoak ezinaren ezinez deszifratu nahirik; bihar, berriz, miretsiko dute Crébillon semeak beren izaera horren alderdi frantziar eta kaskarina zein ederki adierazi izan duen. Atzo Jerme Cardan-ekin ariko ziren denbora pasa familiarki; hemen daukazue orain Sterne-rekin jolasean; edo Rabelais-ekin, tripazalekeria oroz asetzearren. Bestalde, hain dira zorioneko metamorfosi hauetako bakoitzean, ezen ez baitie batere minik egiten jeinu horiek aurrea hartzeak etorkizunaren istimua bilatze horretan. Lotsaga-

bekeria inozoa eta agurgarria aldi berean! Hone-lakoa zen Samuel gizarajoa.

Jaiotzez oso etxe onekoa eta, denbora pasa ibiltzearen, bihurri samarra; izaeraz komediante hutsa, bere buruarentzat bakarrik, atea itxita, trajeria paregabeak —edo, hobe esanda, trajikomediak— antzezten zituen. Asea eta bozkarioz betea sentitzen zen, berez zeukan alaitasunagatik; eta, hau ere esan beharra dago, gure gizona algara batean aritzen zen noiznahi. Edozein gertaeragatik malkoren bat betertzera bazetorkion, ispilura joango zitzaizun, bere burua negarrez ikustearren. Baldin eta neskatxen batek, ankerki, ume bat bezala jeloskor jarririk, orratzaz nahiz ganibetaz harramazka egiten bazion, Samuelek harro hitz egiten zuen zauriaz, aitzo kolpeaz ari bailitzan. Eta norbaitek hari hogeimila franko nazkagarri zor izanik, honela egiten zuen oihu: «Hau jeinuaren zori triste eta laidogarrria, milioi baten zorrez inguraturik!».

Hala ere, ez ezazue sinets hura egiazko sentipenak ezagutzeko gai ez zenik, eta harengan grinak bere axala erakustea besterik egiten ez zuenik. Bere atorra saldu zuen ia ezagutzen ez

zuen gizon bati emateko, bezperan bertan haren lagunik minena egin baitzen, kopetara eta esku-
ra begiratze hutsarekin. Izpiritu eta arima kon-
tuetan izaera germaniarrek eduki ohi duten
patxarako begirada hori eskaintzen zuen; grina
kontuetan, berriz, bere amaren su bizi eta ego-
nezina zekarren; egunerokoetan, ordea, banitate
frantziarraren harrokeria guztiak zeuzkan. Due-
loetan ere ibilia zen, bi mende lehenago hildako
autore batengatik. Elizkoi amorratu izana zen
bezala, ateo ere grinaz bihurtu zen. Ikasiak
zituen autore guztiak, leituak zituen liburu guz-
tiak, haiek bezalakoak izatera helduz aldi
berean; eta hala ere, komedianta ahalmen hori
eduki arren, barne-barnetik orijinala zirauen.
Beti izan ohi zen gozo, irudimen handiko, alfe-
rrontzi, beldurgarri, jakintsu, ezjakin, lotsagaldu;
Samuel Cramer kaxkarina, Manuela Monteverde
erromantikoa. Adiskide batengatik edozein ema-
kumerengatik bezainbat grinatzen zen. Emaku-
mea adiskidetzat maitatzen zuen. Sentipen on
ororen logika zeukan, eta gazte bihurri guztien
jakituria; eta halere ez zuen inoiz arrakastarik
izan ezertan, ezinezkoetan gehiegi sinesten bai-

tzuen. Eta zertaz harritu? Ezinezko horien atzetik, bidean zebilen beti.

* * *

Samueli arratsalde batez kanpora irtetea bururatu zitzaion; giro ederra zegoen eta usain gozoz betea. Izaeraz zeukan gehiegikeriarako joeraren arabera, ohitura basati eta iraunkorrak zeuzkan bere baitan: etxezuloan irtengabe egon, zein etxeratu gabe ibili. Eta oraingoan denbora luzea zeraman bere egoitzatik irten gabe, fidel. Logelaren eta azpiko arroparen eta ile zikin korapilatuen zabarkeriagatik larritzea galarazten ziona, amagandik zetorkion egonkeria zen apika, zainetan zihoakion alferkeria kriolloa alegia. Orraztu, garbitu eta, zenbait minututan, dotoretasuna eguneroko gauza zaion jendearen janzkera eta sendotasuna aurkitzen jakin zuen. Ondoren, leihoa ireki, eta egun bero eta urrezatuan murgildu zen hautsez beteriko gela hura. Miretsi zuen Samuelek egun gutxitan gertaturiko udaberriaren etorrera azkarra, iragarri gabea. Sudurrak, haize epel eta usain gozoz bete hark

ireki zizkion; eta garuneraino ere igo zitzaizalarik pixkaren bat, honek ameskizun eta desioz bete zion burua, beste gainontzekoak bihotza, urdaila eta gibela libertinoki astintzen zizkion bitartean. Adoretsu, bere bi kandelak itzali zituen; bata Swedenborg-en bolumen bati argi eginez egona zen, eta bestea berriz, egiari buruzko gustu neurrigabea duten izpirituei bakarrik komeni zaien liburu lotsagarri horietako bati.

Bere bakardadearen gailurretik, paperez gainezka, liburuz josita eta ametsez aseta, Samuelek maiz nabaritzen zuen Luxenbourg-eko ibilbide batean zehar paseatuz, berak probintzietan garai batean maitaturiko —amodioa maitatzen den adinean— irudi edo itxura bat. Honen aurpegiaren egitura, zenbait urteko esperientziaren ondoren heldu eta sendotuagoa, emakume zintzoaren atsegin sakon eta garbiaren adierazle zen. Bere begien sakonean oraindik neskatila gaztearen ameskizun hezeak dirdira egiten zuen tarteka. Ia beti neskame dotore samar baten laguntzarekin joaten eta etortzen zen; neskame horren aurpegiak eta presentziak seguruago nabarmentzen zuten berarengan andereño

laguntzaile edo kontu kontalariaren irudia, benetakotako otseinarena baino. Anderea, inor ez zegoen bazterren baten bila beti, alargun jarreraz eseri ohi zen noiznahi, leitzen ez zuen liburuari eskuan eutsiz.

Samuelek Lyon-go inguruetan ezagutua zuen hura: artean gazte, buruargi, kapritxozale eta argalagoa. Hari behin eta berriz begiratzearen poderioz eta, horrela esatekotan, hura aztertu ahala, emakumeari zegozkion oroitzapen txiki guztiak banan-banan gogoratzuz joan zen bere irudimenean. Nobela hori bere buruari kontatua zion, txikikeria ñimiñoenak barne, nahiz eta gerora, bere bizitzaren kezkatu eta grinaren laberintzoan, galdu.

* * *

Arratsalde hartan ere agurtu zuen emakume hura, baina arreta bereziz eta begirada beteagoz. Haren aurretik pasatzerakoan, honako elkar hizketa zati hau entzun ahal izan zuen bere atzean:

— Zer deritzon gaztehorri, Mariette? —baina esaldi honek hain ahots arretarik gabea zera-man, non entzulerik maliziusenak ere ez baitzukeen emakumeari erantzun txar bat emateko aukerarik aurkituko.

— Bada, nik oso atsegina deritzot, Madame. Ba al dakizu hori Samuel Cramer dela?

Andereak, tonu gogorrago batez:

— Eta nolaz dakin hik hori, Mariette?

* * *

Hori dela eta, hurrengo egunean Samuelek ardura handia jarri zuen aulki baten gainean aurkituriko emakume haren musuzapia eta liburua itzultzerakoan, hauek ez baitzeuden galdua, han inguruan baitzegoen emakumea, ogi apurrekin lehian zebiltzan txolarreei nahiz landareen barne lanari begira zegoenarena eginez. Arima diapasoi berdinetara eramanez, etorkizun konplizean loturik dauden bi arimen artean maiz gertatu ohi den antzera, bat-bateko elkar hizketa ateraz, berari adi egoteko eta erantzuteko

prest zegoen pertsona aurkitzearen zori ederra izan zuen.

— Oraindik zure oroitzapenen bazterren batean egoteko bezain zoriontsu izan ote nintzeken, Madame? Hainbeste aldatu ote naiz bada, haurtzaroko lagun hau ez ezagutzeko, elkarrekin gordeketan jolastu eta eskolatik hainbat piper egin eta gero?

— Emakume batek —erantzun zuen andereak erdi irribarrez— ez dauka jendeaz hain erraz gogoratzeko eskubiderik. Horregatik, jauna, eskertzen dizut lehenik oroitzapen eder eta alai horietara alderatzeko aukera eskaintzen didazulako. Eta gainera... bizitzako egun bakoitzak hainbeste gertakizun eta pentsakizun dauka... Eta hainbeste urte pasa da...

— Urteak, —erantzun zion Samuelek— joan ezinik zenbaitetan eta eskuetatik aldeginenez bestetan, baina guztiak hain anker izan zaizkit!

— Eta poesia? —bota zuen andereak, irribarrea begietan.

— Hori beti, Madame! —erantzun zuen Samuelek barrezka— Baina, zer ari zara irakurtzen orain, Madame?

— Walter Scott-en nobela bat.

— Orain ulertzen dizut noiznahi irakurtzeari utzi behar hori. Idazle aspergarria benetan! Kronikak lurpetik ateraz dabilen gizaki hautsez beteriko hori! Erdipurdiko deskribapen jasanezinak, traste zahar eta era guztietako txatxukeria pila, armadurak, baxerak, altzairuak; egoitza gotikoak eta melodramako gazteluak, non mani-ki automatikoak paseatzen baitira, gorontze eta koloretako kasakaz jantzirik; tipo ezagunak, hemezortzi urteko inongo plajiatzailek handik hamar urtetara nahi izango ez lituzkeenak, gaztelu dama ezinezkoak eta gaurkotasunaren izpirik gabeko amoranteak; bihotz-bihotzeko egiarik batere ez, sentimenduen filosofiarik batere ez! A zer nolako aldea gure nobelagile frantziar horiekin, grinak eta moralak beti objetuen deskribapen xehetara eramaten dituzten horiekin! Zer axola zaigu gaztelu damak lepokoak eramatea, edo miriñakeak, edo Oudinot gonazpikoak... hura, negar zotinka edo traizioka ari behar duenean, behar bezala aritzen bada behintzat? Amorantea interesgarriagoa egiten al zaizu, eskutan, bisita-txartelaren ordeztan, aiztoa darama-

larik? Eta beltzez jantziriko despota batek sorturiko izuikara ez ote da burdinaz eta larruz estaliriko tiranoarena bezain poetikoa?

Samuel, ageri denez, jende zurrupera horien artekoa zen, gizon jasanezin eta grinatsu horietakoa, elkar hizketari beti luzabidea ateratzen dioten horietakoa, beren ideia tematiak adierazteko nolanhiko egoera —zuhaitz baten ondoan edo kale kantoian, edozein gai ateraz, trapubiltzaile baten antzera— apropostzat jotzen duten horietakoa. Komertzio-bidaiarien, batetik bestera dabiltzan industria-gizonen, elkarte anonimo-etako bazkideen eta poeta zurrupalarien artean ez dago publizitatearen eta predikatzaileen artean dagoen desberdintasuna baizik: sermoilarien bizioak erabat desinteresatuak izatea, alegia.

Damak, ordea, hauxe bakarrik erantzun zion:
— Ene Samuel, Monsieur bihotzekoa, ni ez nauzu publikoaren arteko bat besterik; nire arima errugabea dela jakitearekin aski duzu. Niretzat ere mundu honetan plazerra da bilatzen errazena. Baina hitz egin dezagun zuri buruz; ni

zoriontsu sentituko nintzateke zure lanen batzuk irakurtzeko gai iritziko baninduzu.

— Baina, Madame, nola liteke hori? —atera zitzaion harriturik, poetaren harrotasuna ukitua izan baitzen.

— Nire irakurgelako arduradunak dio ez zaituela ezagutzen.

Eta emakumeak irribarre egin zuen eztiki, okerbeharraren honen efektua leundu nahian edo.

— Madame, —esan zuen Samuelek hitz handiz— hemeretzigarren mendeko benetako irakurlekoa emakumeak dira; zu alde jartzeak handiago egingo ninduke, hogeia akademia nire alde edukitzeak baino.

— Ongi bada, Monsieur, zure agindua gogoan izango dut. Mariette, ekar itzan guardasola eta *echarpea*. Honez gero etxean zain edukiko ditut; badakizu etxeko jauna garaiz itzuli ohi dela.

Emakumearen agurra labur bezain alaitua izan zen, inongo konpromezurik agertu gabe, familiartekotasunak duintasunari lekua kendu gabe.

Samuel ez zen batere harritu aspaldiko gaztaroko maite hura ezkontzaz lotua ikustearekin.

Sentipenaren historia unibertsean derrigorrezkoa da hori. Orain, Madame Cosmelly izenez, Saint-Germain auzoko kalerik aristokratikoentakoan zeukan egoitza.

Hurrengo egunez, berriro topatu zuen, burumaker, malenkonia jostalari eta ia ikasi batez, hesiko loreei begira, eta bere *Orfraies* liburua eskaini zion, soneto bilduma; guztiok, ileak luze bezain ikuspegi laburra geneukan garaian, egin eta irakurri izan ditugun horietakoa.

Samuelek jakinmin handia zeukan ea bere *Orfraies*-ak malenkoniatsu eder haren arima liluratu ote zuen jakiteko, ea aldi berean txori gaizto horien txioek bere alde hitz egiten ote zuten. Baina, zenbait egun geroago, honela mintzatu zitzaion hura zintzotasun eta xalotasun desesperagarri:

— Monsieur, ni emakume bat besterik ez naiz eta, ondorioz, nire epaia ez da ezer asko; baina iruditzen zaidana da, idazle jaunen tristeziak eta maitasunak ez direla inondik ere beste gizakiek dituztenen antzekoak. Zuk goraipamen oso dotoreak eta gustu finekoak egiten dizkiozu zenbait damari, eta nik emakume horiek gehiegi

estimaten ditut, batzutan laudorio horietaz lotsaturik ere egongo direla uste izateraino. Ama direnen edertasuna kantatzeko erabili ohi duzun estiloak alaben onespena galarazi egiten dizu. Munduari diozu, zure idatziak irakurtzen baino, semeen esku nahiz oinetarako beroki eta gal-tzerdiak egiten denbora luzeago ematen duen emakume horietako baten oin edo esku batez grinatzen zarela —eta haren ohorearengatik pentsatzen dugu honela—. Kontraesan oso berezi batez, zeinaren zergatia ezezaguna egiten baitzait, zure intsentsurik mistikoena izaki oso bereziei eskaintzen diezu, damek baino oraindik gutxiago irakurtzen dutenei; eta behe mailako emakume sultanen aurrean zorabiatzen zara platonikoki. Eta emakume horiek, hala iruditzen zait, sute baten aurrean esnaturiko piztiak bezain begi handiak irekiko lituzkete poeta baten irudi delikatuaren aurrean. Gainera, ez dakit zergatik dituzun horren kuttun hileta gaiak eta gorputz deskribapenak. Gaztaroan, zuk bezalako talentua eta zorientsu izateko behar diren baldintzak edukirik, askoz ere naturalagoa irudituko litzaidake gizon zuzenaren poza eta

osasuna gorai patzea, eta ez anatema botatzen edo Orfraies horiekin aritzea.

Hona zer erantzun zion Samuelek:

— Damu naiz, Madame, edo hobe esanda, damu gara, nire kideko anaia asko baitaukat. Geure buruaz eta inguruko guztiaz daukagun desatsegina da irudikapen horietara bultzatu gaituena. Izaeraz noble eta eder izan ezin eta horregatik geure burua arraroki itxuraldatu dugu. Hainbeste saiatu gara geure bihotza sofistikatzen, hainbeste erabili dugu mikroskopioa bihotz hori estaltzen duten hondakin nazkagarriak eta karatxo lotsagarriak aztertzen, gustura asko handitzen ditugularik, ezen ezinezkoa egingen baitzaigu beste gizakien mintzaira bera erabiltzea. Beste horiek nola-hala bizitzea dute xede beren bizitzan; gu, ordea, ai!, gu berriz, jakitearen irrikak eusten gaitu bizirik. Hor datza misterio guztia. Adinak ahotsa besterik ez du aldatzen, hortzak eta ilea besterik ez du eror erazten; guk aldatu egin dugu izadiaren azentua, errotik atera ditugu, banan-banan, gure giza-barne zuzena tentaldira zeramaten lotsa birjinalak. Gu, zoroen antzera, —horiek ere eroago egi-

ten baitira beren erotasuna ulertu nahian— psikologizatzen ari izan gara. Urteek gorputz atalak besterik ez dituzte ahultzen; gu, ordea, grinak desitxuratzen aritu izan gara. Zorigaitza, hiru bider zorigaitza, ahul eta oker etorriak egin gaituzten gurasoentzat, jaioberri hilak bakarrik sortzeko patua eman baitigute!

— *Orfraies* gehiago oraindik! —esan zuen emakumeak— ea, emaidazu besoa eta mirets ditzagun udaberriak horren zorioneko egiten dituen lore gaixo horiek!

Loreak miresten aritu beharrean, Samuel Cramer-ek —esaldia eta periodoa etorriak baitzitzaizkion— zenbait ahapaldi txar, aspaldian osatzen zituen erara, hots egiteari nahiz prosaz emateari ekin zion. Damak utzi egiten zion konposizio lan horretan.

— A zer nolako desberdintasuna; zein gutxi geratzen den gizon beraren kondarretatik, oroipena izan ezik! Baina oroipena ez da samin berri bat baizik. Zein garai ederrak haiek, belaun eri edo handituekin jaikitzen ez ginenak —gaur egun bezalako ametsen nekeagatik—: gure begi argiak izadi osoari irribarrez aritzen zitzaizkion,

gure arima arrazonamendutan ez zen ibiltzen batere, beti biziz eta beti gozatuz; gure hasperenak, eztiki, batere harrokeriarik eta murmuriorik gabe, irristatzen ziren! Zenbatetan berrikusi ote ditut, nire irudimenaren egoitzetan —zuhaitzei kimuak tximistaren abiaduran tupustean lortzen zaizkien antzera— haiek bezalako udazken arrats ederrak, arima gazteek aurrerapen handiak egiten dituzten horietakoak. Orduan ikusten dut benetan, orduan sentitzen, aditzen; ilargiak tximeleta handiak esnarazten ditu, haize beroak ganbarak irekitzen, iturri handietako ura lokartzen den bitartean. Entzun, entzun barne muinetan piano misterioitsu horren bat-bateko balseak! Haizearen usain gozoak leihotik sartzen ari dira; orain da garaia lorategiak soineko gorrixkaz eta zuriz beteko direna, bustitzeko batere beldurrik gabe. Txilar emankorrak gona iheslarietan itsatsiz dabilta, gaztaina koloreko adatsak eta kizkur horailak zurrunbiloan nahasten ari dira! Oroitzen al zara oraindik, Madame, lasto-meta haie-taz, eta zein azkar jaisten ginen haietan behera; eta, izeba haiek arretaz begira zegozkigularik,

horren makal jarraitzen zitzaigun baina horren arin deitzen gintuen inude hartaz?

Cosmelly andereak hasperen batez moztu zuen Samuelen hizjarioa, zerbait esan nahi izan zuen —gelditzeko eskatuz, zalantzarik gabe— baina honek dagoeneko hartua zuen berriro hitza.

— Penagarriena da —esan zuen— amodio orok beti amaiera okerra izan ohi duela: zenbat eta zerutiarrago eta hegaldatuago hasieran, orduan eta okerrago amaieran. Ez dago ametsik, ez idealik, azkenean bularretik zintzilikaturiko haurren bat ez dakarrenik; ez dago hain aterpe edo etxe gozo eta ezkukurik, pikatxoiak erats ez dezakeenik. Halere, erorketa hori materiale mailakoa besterik ez da; badago, ordea, beste bat, askoz ere gupidagabeagoa eta ezkutuagoa, ikusezinezko gauzei oldartzen zaiena. Imajina ezazu, zeure kuttunaren kontra jarriz, honela mintzatzen zatzaizkiola: «Hega gaitezen bi-biok eta araka dezagun zeruaren sakona!». Ahots gupidagabe eta zinezkoa jarriko zaizu belarrian, adieraziz, gure grinak gezurretazkoak direla, aurpegi politikak gure ikusmen urriak sortzen

dituela, eta arima ederrak, berriz, gure ezjakintasunak; eta beti iristen dela egun bat, non, begirada argienarentzat, idoloa objektu hutsa bihurtuko den, ez gorrotoaren objektu, baina harridurarena eta erdeinuarena.

— Mesedez, Monsieur! —mintzatu zitzaion Cosmelly anderea. Hunkiturik zegoen ezbairik gabe. Samuel konturatu zen aspaldiko zauri bat urratu zuela eta, ankerki, berriro ekin zion.

— Madame, —esan zuen— oroimenaren minbera osasungarriek badute beren xarma, eta minaren zorabioan sarri aurki liteke kontsolamendurik. Hileta oharkizun honen aurrean arima fidel guztiak ozenki mintzatuko lirateke, honela: «Jauna, eraman nazazu hemendik nire amets ukigabe eta garbiarekin; izadiari itzuli nahi diot nire grina birjintasun osoz, eta nire koroa zimeldugabea ere eraman nahi nioke». Gainera, etsipenaren ondorioak ikaragarriak dira. Hil ez hil dagoen amodioagandik sorturiko haur gaixoberrak dira, libertinaje tristea, eta ezin gorrotagarria: izpirituaren emankeria, bihotzaren ezina; bata jakinmin hutsez bizitzeko eta bestea utzikeriaz hiltzeko egunero. Gutxi gorabehera, bidaiari

baten antzekoak gara denok: lurralde zabal bat ibilia lukeen bidaiaria; lehen bidea urreztatzen zuen eta orain axaleko zeruertz batean galtzen ari den eguzkiari arratsero begira legokeen bidaiaria. Bidaiari hori hondakin ezezagunez estaliriko mendixka narratsetan esertzen da etsipenez, eta sastraken usainei mintzatzen zaie, zeru hutsalera igotzea eder litzaiekeela esanez; ale arraro eta zorigabekoei lur lehortuan kimuak botatzea on litzaiekeela esanez; txoriei, beren ezkontzak norbaitek bedeinkaturik dauzka uste duten horiei, adieraziz beren habiak haize zakar eta hotzak zigorturiko haranean erai-kitzean oker zeudela. Eta berriro, tristeki, bideari ekiten dio, lehen igaro duen antzeko beste basamortu baterantz, Arrazoi izeneko mamu zurbila lagun, honek kriseilu zurbilago batez bidearen lehorteari argi egiten diolarik, eta, noiz edo noiz, hozka ari zaion grinazko egarri birjaioa arintzearen, asperkeriaren pozoia isurtzen diolarik.

Bat-batean, hasperen sakon eta ia eutsi ezinezko zotina aditzean, Cosmelly anderearengana itzuli zuen bere burua; negar batean ari zen

eta ez zeukan bere malkoak gordetzeko adorerik ere.

Denbora batez, isilik begiratu zion Samuelek, aurki zezakeen jarrera hunkikor eta zurienaz; komediagile basati eta zuri hura malko eder haietaz harro zegoen; bere lana ziren eta bere jabego literariotzat zeuzkan. Minberatasun horren esanahi intimoaz, ordea, oker zebilen; Cosmelly anderea, era berean, hunkikortasun inozo horretan nahasirik, haren begiradaz oker zegoen bezala. Han ulermen okerrez osaturiko joko berezia suertatu zen, eta ondoren, Samuel Cramer-ek eskuak hartu zizkion, emakumeak, konfidantza samurrez, onartu egin zuelarik.

— Madame, —hasi zen berriro Samuel, zirrarak sortu ohi duen isilune horietako baten ondoren egiazko jakinduriaren oinarria, itxarotean datza, madarikatzean baino gehiago. Itxaropenaren dohain jainkozko hori gabe, nola zeharkatu adierazi dizudan basamortu aspergarri hori? Languntzat daramagun mamu hori arrazoiak osaturiko mamua da benetan: baina uxa genezake, teologiazko lehen bertutearen ur bedeinkatuaz bustita. Badago filosofia atsegin bat, itxuraz

oso zuzenak ez diren gauzetan kontsolamendua aurkitzen dakiena. Bertutea inuzentzia baino baliotsuagoa den bezala, eta basamortuan ereitean baratze oparotik harrapatzean baino meritu handiagoa ikus litekeen bezala, horrela gol mailako arimaren gauza da bere burua erabat garbitzea eta, aldi berean, inguruan dagoena garbitzea. Nola ez dagoen barkamenik gabeko traiziorik, era berean, ez dago absoluzioa eskura ez dezakeen errurik, edota lortu ezinezko ahazturarik. Badago aldamenekoa maitatzen eta hura maitagarri ikusten irakasten duen zientziarik; baita, halaber, ongi bizitzen irakasten duenik ere. Izpiritu batek, zenbat eta finagoa izan, orduan eta jatorrizko edertasun ugariago aurkituko du. Arima bat Jainko-itxaropenarentzat irekiago eta bihozberago dagoen heinean, neurri berean aurkituko du besterengan —hau anker izanik ere— maitasunerako aukera. Karitatearen lana da hori. Eta ikusi izan da bidaiari bat baino gehiago, liluraren basamortu antzuan galdurik ibili arren, berriro galdutakoaz gripa biziagoz arduratzen eta fedea berreskuratzen; eta pasio indartsuagoz orain: maitatzen duenaren grina

eta berea zuzen ditzakeen zientzia eskuetan baitaramatza.

Cosmelly anderearen aurpegia bere onera etorria zen emeki. Haren tristura itxaropen dirdiraz argitu zen, eguzki hezearen antzera, eta, Samuelek bere hizketa amaitu bezain azkar, honela mintzatu zen emakumea, biziki, haur baten inuzentzia sutsuz:

— Egia da benetan, Monsieur, hori horrela gerta daitekeela. Baina, ba ote dago desesperatuentzat adarrik, heltzeko hain samurra denik?

Jakina, Madame.

— Ai, emakume zoriontsuena egingo nindukezu, zure errezeta horiek irakasteko ohorea egingo bazenit!

— Ez dago ezer errazagorik —erantzun zion basati.

Berriketa bigun horrekin batera bien artean konfidantza sortua zen, haien eskuak elkartzeraino. Zalantza eta lotsaren ondoren, hauek Samueli adur onekoak iruditu zitzaizkiolarik, Cosmelly anderea, bere aldetik, honela hasi zen askatzen bere burua:

— Konpreni dezaket, Monsieur, arima poetiko batek horrelako isolamenduaz har dezakeen sufrimendua, eta zenbat eta zein azkar ezabatuz joango den zurea bezalako bihotzaren handinahia bere bakardadearen baitan. Baina minak, zureak besterik ez direnak, beti asegai eta ia ase ezinezko beharkizun horietatik datozkizu, zure hitz puztuen artetik atera ahal izan dudanez. Sufritzen ari zara, egia da; baina, badaiteke sufrimendu hori zure handitasunaren egile izatea, eta horrela besteentzat zoriona bezain beharrezko bilakatzea zuretzat. Egingo al zinateke orain tristura ulerterrazagoen lagun, probintzietako min horien lagun? Zugandik, Cramer jauna, zugandik, jakintsu eta izpirituzko gizon horrengandik, espero ditut kontseiluak, eta agian adiskidearen laguntzak ere bai.

«Badakizu —segitu zuen andereak— ezagutu ninduzun garaian neskato zintzo bat besterik ez nintzena, ameslari samarra, zu bezala, baina lotsati eta esanekoa. Badakizu, halaber, ez nuela zuk baino sarriago begiratzen ene burua ispi-luan, eta beti zalantzan ibiltzen nintzela zuk ausarki gure auzoen baratzen niretzat osten

zenituen mertxika eta mahatsak jan edo poltsikoan sartu baino lehenago. Hori egin ahal izan nuen bitartean, hura bezalako plazer atsegin eta osorik ez dut geroan ezagutu; eta, era berean, zein gustuko nuen zu bezalako mutil eder bat besarkatzea nire izeba zaharraren aurrean edo soro erdian. Ezkontzeko dagoen neska gazte orok behar duen koketeria eta arreta nahikoa berandu etorri zaizkit. Geroago, pianoan jarrita erromantzeren bat kantatzen ikasi nuelarik, txukunago jantzi ninduten, zuzen ibiltzera behartu ninduten, gimnasia eginarazi zidaten eta nire eskuak loreak landatuz, nahiz usoak zainduz hondatzea debekatu. Berquin besterik ez neukan irakurtzerik, eta hango teatrora eraman ninduten, gau soinekoz jantzirik, opera txar askoak ikustera. Cosmelly jauna gaztelura etorri zenean, berehala sortu zitzaidan harenganako adiskidetasun bizia; nire izebaren zahartzaro marmarti samarrarekin parekatuz, haren gaztetasun loratuari oraindik itxura nobleagoa, zintzoagoa, hartu nion, berak nireganako errespetu handiko galanteria erakusten zidalarik. Gainera hari buruzko ekintza ezin ederragoak kontatzen

zituzten: nola besoa puskatu zuen lagun ezaxolati samar batengatik, honek bere arrebaren ohorea defendatzearen eginkizuna utzia ziolarik; nola fortunarik gabeko antzinako lagunei dirutza handiak utzi zizkien, eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Guztiekin aginte doinu atsegina, eta aldi berean hari uko egiten zaila, erabiltzen zuen, ni neu ere menperatu ninduen. Gure ondoan gazteluan bizitzera etorri baino lehen nolako bizimodua ote zerman? Ezagutu ote zuen beste plazerrik, nirekin ehizan ibiltzeaz edo bertutez beteriko erromantzeak nire piano txar hartan kantatzeaz aparte? Amoranterik izan ote zuen? Ez nekien horretaz ezer, eta ez nintzen jakiteaz arduratu ere egiten. Hura maitatzeari ekin nion, konparatzeko denborarik izan ez duen neskatilaren sineskortasun osoz, eta harekin ezkondu nintzen, nire izeba pozarren utziz. Erlijio eta legearen aurrean haren emazte bilakatu nintzelarik, oraindik gehiago maite izan nuen. Gehiegi maite izan nuen, dudarik gabe. Oker ote nengoen? Zuzen ote nenbilen? Nola jakin hori? Ni zoriontsu nintzen amodio harekin, baina erraturik nengoen amodio hura okertu zitekeela ez

jakitean. Ongi ezagutzen al nuen ezkondu baino lehenago? Ez, noski; baina, badirudi ezkontzera doan neska ohoretsu bati, edo amorante anker batengatik bide okerretan sartzen den emakumeari, ezin zaiola leporatu aukera zuhur bat ez egina. Bata eta bestea, zorigaiztokoak gu, ezjakinak dira era berean. Ezkontzeko dauden zoritxarreko biktima hauei falta zaiena da heziketa lotsagarriagoa hartzea, esan nahi dut, gizonezkoen bizioak ezagutzea alegia. Nik nahi nukeena hauxe da: neskatila gaixo hauetako bakoitzak ezkontzaz uztartu baino lehen aukera izan dezan, bi gizonezko berriketan entzuteko, bizi-tzako gauzei buruz, batez ere emakumeei buruz, leku sekretu batetik eta inork ikusi gabe. Lehenengo saio ikaragarri honen ondoren, neska horiek arrisku gutxiagoz saihestuko lituzkete ezkontzaren egoera okerrak, beren etorkizuneko tiranoen indarrak eta ahuleziak ezagutuz».

Samuelek ez zekien ziur nondik nora joan nahi zuen hitz horiekin biktima xarmant hark; baina emakumeak, emazte desilusionatua izateko, bere senarraz gehiegi hitz egiten zuela jabetzen hasi zen.

Zenbait minututako geldiuñearen ondoren, gai ilunenari ekiteko beldurrez bezala, honela segitu zuen andereak:

— «Egun batez, Cosmelly jaunari Parisa itzul-tzea bururatu zitzaion; beharrezkoa omen zen nik neure garaian distira egitea, eta neure merituengatik zegokidan lekuan kokatua izatea. Emakume eder eta hezia Parisi zor zaio, zioen. Beharrezkoa da munduaren aurrean dagokion lekua har dezan eta bere senarrari distira horren zatiren bat bederen hel dakion. Izpiritu prestuzko eta ezaguera zuzeneko emakume batek badaki ez daukala berez loriarik, baina bere bidaia-lagunaren lorian partaide izango da, baldin eta honen bertuteen zerbitzari egiten bada; hura errespeta erazten ez badu, bere buru emea ere ez da errespetatua izango. Hau zen, ezbairik gabe, nik ia pozik obedi nezan lortzeko biderik aproposena: nire ahaleginak eta obedientziak haren begien aurrean ederrago egingo nindutela jakitea. Halere, ez nuen horrenbeste behar Paris ikaragarri honi ekiteko erabakia har nezan, nahiz eta neure baitan beldur izan, nahiz eta, halaber, haren mamu beltz itsugarriak, nire ametsen

urrunean, neure ezkonberri bihotz gaixoa kokildu. Hauxe zen bada, ene ustez, gure bidaiaren egiazko arrazoia. Senarraren harrokeriak emazte maitekorraren bertutea osatzen du. Agian, hura bere buruari gezurretan ari zitzaion, asmo onez beterik, eta, jakin gabe, bere ezaguerari iruzur egiten zion. Parisen zenbait egun lagun minekin eman genituen, gerora Cosmelly jauna haietaz aspertu zelarik, bere emazteaz aspertua zen bezala. Beharbada, honek gehiegi maite zuelako —bere bihotz osoa emana baitzion— joan zen aspertzen. Adiskideekin, berriz, kontrako arrazoiengatik nazkatu zen.

Haiek ez zeukaten ezer eskaintzekorik, inongo grinarik ez zerakusaten, elkar hizketez osaturiko plazer aspergarriak izan ezik.

»Orduz gero —segitu zuen—, haren eginkizunak beste bide batetik joan ziren. Lagunen ondoren, zaldiak eta jokoak etorri ziren. Munduko zalapartak, inoiz ardurarik gabe ibili zirenen bizi-bideak —gaztaro zoro eta zalapartatsu baten oroipenak etengabe gogoratzen baitzizkion—, sutondotik eta solasaldi luzeetatik aldendu egin zuten. Bere bihotzaz aparte beste kezkarik izan

ez zuen hark, betebegar berri batzuk hartu zituen. Aberats eta lanbiderik gabe, eginbide egongaitz eta kaskarin askori heldu zion, bere denbora osoa betez. “Nora zoaz? Noiz ikusiko zaitut berriz? Itzul zaitez azkar!” eta ezkonberrien arrear egiten diren horrelako galderak, ene bihotzaren barru-barruraino baztertu behar izan nituen; bizimodu ingelesak —bihotzaren heriotza horrek—, klub eta zirkuluetako bizimoduak, oso osorik irentsi baitzuen. Bere buruaz hartu zuen erabateko ardurak eta non-nahitik zerion dandismoak hasiera hasieratik utzi ninduten zurturik; argi zegoen ez zuela guzti hori nigatik egiten. Hark bezala egin nahi izan nuen: ederra baino ederragoa, koketa hutsa izan berarentzat, hura mundu osoarentzat zen bezala. Lehenago, dena eskaintzen nion, guztia ematen; aurrerantzean, ordea, niri erregu ziezadan nahi nuen. Nire zorientasun itzaliaren errautsak berrindartu nahi nituen, behin eta berriz eraginez eta nahastuz; baina badirudi ez nintzela batere trebea zuhurkeria kontuan, eta are baldarragoa oraindik bizio kontuetan: nire ahaleginaz ohartzera ere ez zen makurtu. Nire izeba ankerra, atso zahar eta

bekaizti guztien antzera, garai batean tartean ibili eta gero soilik hegira egotera kondenatua, eta beste batzuk albora uzten dituzten plazerrak zirrikutik begiratzera behartua, bada, nire izeba horrek ardura handia hartu zuen, Cosmelly jaunaren lehengusu baten bitartekotza interesatuaren bidez, senarra oso modan zegoen emakume antzezlari batekin maitemindurik zebilela niri jakinarazteko. Ikuskizun guztietara eramán nintzaten egin nuen, eta agertokian sartzen ikusten nuen emakume eder orok, beragan ene arerioa ikusarazten zidalarik, dardarka jartzen ninduen. Azkenean jakin nuen, lehengusu berberaren bitartez, nola emakume hori *La Fanfarlo* izeneko dantzaria zen, ederra bezain tuntuna. Zuk, idazle zarenez, ezagutuko duzu, dudarik gabe. Ni ez naiz buru harroa, eta ez naiz nire gorputz itxuraz harrotzen, baina zin degizut, Monsieur, batzutan, gauzez, goizeko hiruak edo lauak aldera, ene senarraren zain egoteaz aspertuta, begiak gorri, malkoen eta loezinaren poderioz, hura fideltasunera eta bere betebeharretara itzul zedin otoitz luzeak egin ondoren, Jainkoari, nire kontzientziari eta ispiluari, galde egin izan diedala ea La Fan-

farlo mixerable hori bezain ederra ez ote naizen. Ispiluak eta nire kontzientziak hauxe erantzun didate: Bai. Jainkoak horretaz harrotzea debekatu egin dit, baina ez arrakasta zilegi bat lortzea. Zergatik ote, bi edertasun berdinen artean, gizonek mundu guztiak usainduriko lorea nahiago dutela, beti ezkontzaren lorategiko ibilbiderik ilunenetan, paseatzaileengandik gorderik, egon den harena baino? Zergatik, bada, gorputz hori, sultan bakar baten giltzapean egon behar lukeen altxorra, nonahi zabaltzen duten emakumeek, zergatik, bada, adoratzaile gehiago izaten dute, amodio bakar baten martiriok baino? Zein xarma berezi eransten die bizioak halako izakiei? Nola-ko itxura baldar eta nazkagarria ematen die bertuteak bestelakoei? Erantzuidazu, bada, zuk zeure eginkizunagatik bizitzaren sentipen oro eta bere arrazoi desberdinak ezagutu behar dituzun horrek!»

Samuelek ez zuen erantzuteko denborarik izan, emakumeak honela segitu baitzuen:

— «Cosmelly jaunak oso gauza larriak dauzka bere kontzientziaren gainean, baldin eta Jainkoari arima gazte eta birjin baten —beste baten

zorionerako sor erazi zuenaren— galera interesatzen bazaio behintzat. Gaur gauean bertan hilez gero, Cosmelly jaunak barkamen asko leukake eskatzeko, zeren, bere erruz, emazteak sentipen ikaragarriak ikasi baititu: gorrotoa, maiteaganako mesfidantza eta mendeku egarria. Ai, Monsieur, zein gau mingarriak igarotzen ditudan, zein logaltze kezkatuak; erregu, madarika-zio, birao, denak batera egiten ditut. Apaizak dioenez, burua makurtu eta gurutzea eraman behar omen da; baina, amodio erotuak edo fede hautsiak ez daki zer den eraman oneko izatea. Nire aitortzaren entzulea ez da emakumea, eta nik ene senarra maite dut, maite dut, Monsieur, zauritua eta kolpatua izan den amorante baten min guztiarekin. Ez dago ezer frogatu ez dudarik. Lehen neramatzan buruko soil eta ilunen orde, eraman ditut beste batzuk, eroak eta handinahiak, antzokietako emakumeenak bezalakoak. Ni, gaztelu zahar baten barruan bilatu nahi izan zuen emazte orbaingabe hau, ni, haren aurrean neska kaskarinen arropaz jantzita! Bihoztzean heriotza neukalarik, hala ere, arin eta bizkor egin nintzen. Ene ezina irribarre distiratsue-

tan bordatu behar izan dut. Ai, eta hark ez du ezer ikusi nigan! Gorri-gorri jartzen naiz, Monsieur, gorri-gorri! Ikusten duzu; istorio hutsala da, zoritxarreko guztien istorioa, probintzietako kontakizuna».

Samuelek, anderea zotinka ari zen bitartean, Tartufe-ren itxura egiten zuen; Orgon-ek, bat-batean agerturiko senarrak, ezustean harrapatutako Tartufe-rena, alegia; Orgon bere gordeleku-tik harengana irtenez bat-batean. Era berean, emakume horren zotin bertutetsuak, bihotz-bihotzetik ateratakoak, gure poetaren zurikeria zalantzatiaren lepoan zintzilikatu ziren.

Cosmelly anderearen erabateko utzierak, libertate eta konfidantza haiek, harritzeko moduan piztu zuten Samuelengan grina; halere, ez zen harritu. Samuel Cramer hura, hainbat aldiz munduari ezustekoak eman zizkiona, ez zen ezertaz harritzen. Bazirudien bere bizitzan zehar praktikan jarri eta demostratu egin nahi zuela Diderot-en pentsakizun haren egiazkotasuna: «Sineskaiztasuna, askotan, tonto baten bizioa besterik ez da; sineskortasuna berriz, gizaki zuhurraren akatsa. Zuhurrak badaki urru-

nera ikusten ahalbideen eremu zabalean; tontokak, ordea, berez posible dena besterik ez du jotzen posibletzat. Agian honek egiten du uzkur-ti bata eta beldurgabe bestea». Honek adierazten du guztia; zenbait irakurle ikarakor eta egia- ren itxuraren aldekoak, istorio honi oker asko aurkituko dizkio; nik neuk, bestalde, izenak aldatu eta zenbait xehetasun eranstea besterik ez dut egin.

Irakurle horiek berak esaten ariko direnez, nola Samuel, poeta kaxkar eta ohitura txarreko hori, hel daiteke horren erraz Cosmelly anderea bezalako emakume batenganaino? Eta gainera, Scott-en kontakizun bat aitzakiatzat harturik, poesia erromantiko eta hutsalez beteriko erauntsi batez estali? Eta nola atera zituen horren erraz, halaber, Cosmelly andereak, emazte bertutetsu eta zuhurak, lotsa eta mesfidantzarik gabe, bere arranguren sekretuak? Galdera hauei erantzunez diot, Cosmelly anderea arima eder bezain taigabea zela, eta Samuel berriz, tximeletak, liztorrak eta poetak bezain ausarta: edonolako sutara bota zezakeen bere burua, edozein leihotatik sartu. Dideroten gogoetak argi adie-

razten du nolaz zen bata hain inuzentea, eta hain baldar lotsagabea bestea. Gogoeta horrek berak adierazten ditu baita ere Samuelek bere bizitzan zehar egindako txorakeriak, tonto batek ere egingo ez zituzkeenak. Oinarrian entzulegoaren zati epelenak ez du Samuelen pertsonaia inolaz ere ulertuko, oso sineskor eta irudimen bizikoa baitzen, hainbeste, non bere grinetan sinesten baitzuen; gizakia zenez, eta poeta zen neurrian, berriz, bere entzulegoarengan zeukan sineste hori.

Une hartatik bertatik konturatu zen Samuel emakume hura itxuraz zirudien baino gogorra-goa, helkaitzagoa zela, eta ez zitzaiola komeni inuzentzia bihozbera horri zuzen-zuzenean min egitea. Berriro ere bere hizjario erromantikoa zuzendu zuen andere harengana. Ergela izanaz lotsaturik, desaprensiboa izatea etorri zitzaion orain gogora. Zenbait denboraz apaizgaien *patois* modukoa atera zuen, hari hitz egiteko: zein itxi edo sendatu beharreko zauriei buruz; zein odoletan borborka, baina minik emateke, ari ziren zauridurei buruz. Inoiz ezertaz kezkatu ez den emakume zintzo bat bereganatzeko asmoa

hartu duen edonork, Valmont edo Lovelace baten indarra badu behintzat, badaki nolako baldarkeria barregarriaz erakutsiko duen bere bihotza hitz egiterakoan, esanez: «hartzazu ene bihotz basatia». Hau ikusirik, Samuel Cramer zein inozoa izan zen jakiteko gehiagoren beharrik ez daukat.

Cosmelly anderea, Elmira atsegina nahi baduzue, bertutezko ikusmen argi zuhurraren jabe izanik, berehala konturatu zen apaizkume bihotz gabe hari atera ziezaiokeen onuraz, bai bere buruaren zorionari begira, bai bere senarraren ohoreari zegokionez. Txanpon bera itzuli zion bada: eskuak hartzen utziz, adiskidetasunaz eta gauza platonikoei buruz hitz eginez. Emakumeak mendeku hitza adierazi zion belarrira, alegia, egoera latz hartan mendekua hartuko zuenari senarrak utzitako bihotz zatia emango ziokeela eta horrelako lelokeria dramatikoak. Hitz batez, emakumeak koketeria erabili zuen bere onerako, eta gure gazte ezaxolatiak, jakintsu ez baino inozoa baitzen, agindu zion La Fanfarlo Cosmelly jaunaren besoetatik erauziko zuela, honela emakume bertutetsu harengandik ekin-

tza horren ordaina jasoko zuelakoan. Poetek bakarrik sor dezakete honelako munstrokeriarik.

* * *

Istorio honetako xehetasun komiko bat, lau pertsonaia horien artean jokatzera zihoan drama mingarrian atsedenaldi gisa, Samuelen sonetoen *quid pro quo*-a izan zen; sonetoei zegokienez, ez baitzeukan erremediorik. Bat Cosmelly anderea-
rentzat idatzi zuen, estilo mistikoan, haren Beatriz gisako edertasuna goralduz, haren ahotsa, haren begien aingeruzko garbitasuna, haren ibileraren lizunik eza, eta abar. Bestea, La Fanfarlorentzat, edertasun malkartsuz josia, apaizkume baten aho-sabaia odoletan jartzerainokoa. Poesia genero horretan asko nabarmendu zen, eman zitezkeen gehiegikeria guztiak gaindituz. Hauen zati bat dantzarisarenganaino ailegatu zen, baita bota ere honek azkar asko luzker platerkada hura zakarrontzira. Bigarren zatia ezagutzen dugun zoritxarreko emakumearenganaino heldu zen; honek aurrena begi handi-handiak jarri zituen; gero, ulertuz azkenik, eta bere

arrangura eta guzti, algara batean barreari ekiten ezin izan zuen saihestu, bere garai onenetan bezala.

* * *

Samuel antzokira joan zen eta ohol gainetako La Fanfarlo hura aztertu nahi izan zuen. Arina, berebizikoa, indartsua, bere janzkeran harrizkerako moduko gustu onekoa, iruditu zitzaion, eta Cosmelly jauna oso zorioneko jo zuen, halako gauza batengatik hondoratzeko zorian ikusirik.

Dantzarisaren etxera bi aldiz joan zen ate joka; etxetxoak eskaileran balusazko eskulekua zeukan, gortina ederrak eta alfonbrak nonahi; auzategi berri batean zuhaitz artean kokatua zegoen. Baina aitzakia ona behar zuen han sartzeko. Amodiozko azalpen bat alferrikakoa eta arriskutsua ere izan zitekeen. Halako porrotak berriro itzultzeko bidea erabat itxiko zion. Bere burua aurkezteko ahalegina egin ondoren, La Fanfarlok etxean inor ez zuela hartzen jakin zuen. Behin edo behin lagun minen bat edo beste aparta, inor ere ez zuen ikusten. Zer esan

behar zion halako dantzarisa bati, hain ongi ordaindua, hain ongi mantendua, maitaleak horrenbeste adoratzen zuen hari? Zer esan behar zion berak, ez baitzen ez jantzigile, ez soinekogile, ez dantza irakasle, ez dirudun? Beraz, erabaki erraz eta basatia hartu zuen: La Fanfarlo beregana etor zedin egingo zuen.

Garai hartan orain baino baliotsuagoak izan ohi ziren laudoriozko nahiz kritikaz osaturiko artikuluak. Idazlan horien aukerak gaur egun baino ugariagoak ziren, legegizon ezagun batek duela gutxi, zoritxarrez ospetsu bihurturiko prozesu batean, zioenez; kazetarien ~aurrean bere burua makurtzera iritsia zen zenbait buru azkar; gazte ezinegon eta menturazaleen lotsagabeberia mugarik gabe zebilen. Horrela hasi zen Samuel, musikaz tutik ere jakin gabe, antzerki lirikoari buruzko artikuluez arduratzen.

Orduz gero, orririk garrantzitsuenetako batean, astero hitz egin zen La Fanfarloz. Inork ez zukeen esango, ezta burutik pasa ere, emakume hark bernak zein orkatilak gaizki biribilduak zeuzkanik, edo galtzerdi lumen azpian giharrak dantzan ibiltzen zitzaizkionik; prismaiko guztiek

biragilearen kontra egingo zuketena oihu. Hala ere, emakume hura basatia eta arrunta zela idatziz zen, gusturik gabea, antzerkira Rhin edo Pirineoz handikako ohiturak omen zekartzana: kriskitinak, ezproinak, bota takoidunak. Eta hori dena, granadalari batek adina edaten zuela, edota txakurkumeak eta bere atezainaren alaba gehiegi maite zituela kontutan hartu gabe. Eta honela, dantzarisaren bizitzako zenbait trupu zahar ere kaleratua izan zen, egunkari txiki eta garrantzi gabeko batzuen goxoki eta bazka bihurtuz. Kazetariak erabili ohi duten konparazioak parekatzeko joera berezi horrekin, balizko dantzarisa bat eraikia izan zen, eredu gisa, bestearen kontra: beti zuriz zebilena eta, mugimendu beti garbien bidez, kontzientzia gazteak lasai uzten zituena. Bestalde, askotan La Fanfarlo oihuka eta barrez joaten omen zen eserleku aretora, kriseilu gainetik salto egin eta agerlekutik dantzan ateraz... Inoiz ez omen zuen jazten gasazko jantzi zozo horietakorik, dena erakusten eta ezer somatzen uzten ez duten horietakorik. Zarata egiten zuten oihalak nahiago omen zituen, noski, eta gona luzeak, burdin-xaflaz eta

adornu metalikoz josiak, eta, belaun indartsuak indarrez jaso zitzan, tarrapatarien gerruntzeak. Dantzan ari zelarik, bere belarritakoek, uztai txikiak baino gehiago lanparak ematen omen zuten. Dantzarisa hark gustura lotuko omen zuen, alegia, andrakileta anitz bere gonen ertzetan, emakume ijito zaharrek egin ohi duten antzera; hauek etorkizuna adierazten dizute amenazuzko keinuz, eta erromatarren horma zaharretako arkuen azpian aurki ditzakezu eguerdi-eguerdian. Dena den, ez dira batere finak, baina Samuel erromantikoa, Frantziak daukan azkenetarikoa, haietaz maitemindurik zegoen.

* * *

Hiru hilabetez La Fanfarloz gaizki hitz egin ondoren, hartaz maitemindurik geratu zen, eta emakumeak munstro hura nor ote zen jakin nahi izan zuen, altzairuzko bihotz hura, pedante hura, bere jeinuaren erregetza burugogorki ezeztatzen ari zen izpiritu ahuleko hura.

La Fanfarlori berea eman behar baldin badiogu, esan beharra dago beragan jakinmina besterik ez zela egon, ezer gehiagorik ez: halako gizon batek sudurra aurpegi erdian ote zeukan? Beste gainontzekoak bezala egina ote zegoen? Samuel Cramerri buruzko berri bat edo beste jaso zue-nean eta beste edonor bezalako gizona zela jakitean, alegia, bazuela ezaguerarik eta nolabaiteko talenturik, orduan ikusi zuen han bazegoela ezkutuko zer bait, eta agian asteleheneroko artikulua beldurgarri hura ez zela asteroko lore sorta berezi baten irudia baizik, edo beharbada pretendiente egoskor baten bisita txartela.

Arrats batez bere kamerinoan aurkitu zuen. B kandela handik eta su zabal batek, beren argiak dardarka eramaten zituzten apain-mahaian zeuden kolore anitzetako soinekoen gainera.

Hango erreginak, antzokitik aldegitiko, edozein gizakik ipin lezakeen jantzia zeraman, eta kaxa baten gainera makurturik, bere oina inongo losintxarik gabe jazten ari zen; bere eskuak, zorrotz eta arinak, bortzegiaren korapiloa pasatzen ari ziren ojaleetan barrena, hego-hari trebe baten antzera, oraindik jaitsi gabe zeukan

gonazpikoan pentsatzeke. Zango hura Samue-
lentzat bere betiko desioaren motibo zen ordura-
ko: luze, fin, indartsu, mardul eta aldi berean
zaintsu, edertasunaren zuzentasun osoa zeukan,
eta politaren erakarpen libertino osoa ere bai.
Lekurik zabalenean perpendikularki ebakia,
zango hark triangelu moduko bat osatzen zuen,
erpina zangarraren gainean zeukalarik, eta ber-
naren marra biribilean, berriz, oinarri konbexoa.
Gizonezkoaren benetako zangoa gogorregia izan
ohi da, eta Deveria-k marrazturiko emakume
bernak delikatuegiak dira, gure dantzarisak
zeuzkanen ideia egiteko.

Jarrera atsegin hartan, burua oinerantz
makurturik, *proconsul* baten antzeko lepoa era-
kusten zuen, lodi eta indartsua, eta sorbalden
irudia nabarmentzen zuen, haragi beltzaran uga-
riz estalita. Adatsak, bete luzeak, bi aldeetara
erortzen zitzaizkion, bularrartean hazkura egi-
nez; horregatik, uneoro hartu eta atzera botaka
ari beharra zeukan.

Egonezin urduri eta liluragarri batez, gauzak
behar bezain arin ez doazela uste duen haur
mimatu baten antzera, bere gorputz osoa eta

jantziak astintzen zituen, pauso bakoitzean alde eta efektu bereziak erakutsiz, bai marratan, bai koloretan. Samuel, errespetuz, geldi-geldi geratu zen, edo horren itxura egin zuen behintzat, zeren gizon deabru honengan ez baita erraza komediantea lanean noiz hasten den jakitea.

— A, zu al zara, Monsieur! —esan zion emakumeak, haserrerik gabe, Samuelen bisitaren berri minutu batzuk lehenago jakin izan balu bezala. Zerbait galdetu nahi zenidake, ezta?

Hitz honen gordinkeria gorengoa zuzen-zuzen joan zen Samuel gaixoaren bihotzera. Cosmelly anderearen ondoan berritsu erromantiko baten antzera zortzi egunez aritu ondoren, orain, lasai-lasai, hauxe erantzuten hasi zitzaion:

— Bai, Madame —eta malkoak etorri zitzaizkion begietara.

Honek arrakasta izugarria izan zuen. La Fanfarlok irribarre egin zion.

— Baina, Monsieur, zerk bultzatu zaitu horrelako hortz ederrez niri hozka egitera? Bai lanbide itsusia...

— Itsusia benetan, Madame... zutaz maite-mindurik bainago.

— Ez dakit hori— erantzun zuen La Fanfarlok— Zu munstroa zara eta. Taktika hori gorrotagarria da. Gu garen neska gaixookin! —erantsi zuen erdi barrez—. Flore, ekar ezan nire besokoa. Emaidazu zure besoa zalgurdiraino eta esaidazu arrats honetan ongi aurkitu ote nauzun.

Horrelaxe Joan ziren, elkarri esku emanda, bi lagun zaharren antzera. Samuel amodioak jota zegoen, edo behintzat bere bihotza gogor ari zitzaion taupaka. Agian ezohizkoa izan zen haren jarrera, baina oraingo honetan ez zuen nabarmenkeriarik egin.

Bere pozean, ia ahazturik zeukan Cosmelly andereari lorturiko arrakastaren berri ematea, eta, bide batez, haren etxe ilunera itxaropen pittin bat eramatea.

* * *

Handik egun batzuetara, La Fanfarlok *Colombine*-ren papera egin zuen, jende letradunari zuzenduriko pantomima luze batean, harentzat propio prestaturikoan. Bata bestearen atzetik zetozen pertsonaien metamorfosia gozoz ager-

tzen zen: *Colombine*, *Marguerite*, *Elvire* eta *Zphyrine* izenak hartuz, eta, munduko alaitasunik handienaz, pertsonaia belaunaldi anitzen besarkadak hartzen zituen, lurralde eta literatura desberdinetatik harturiko pertsonaien besarkadak. Edozein musikagile handik ez zuen atzera egingo gai bitxi hari partitura egoki eta harri-garri bat osatzeko proposamenaren aurrean. La Fanfarlo, emakume zintzo, azti, ero edo lirain izan zen, bata bestearen atzetik; ezin ederrago ibili zen bere eginkizunean, oinetan dantzari bezain komediante begietan.

Guregan dantzaren artea baztertuegia dago, bide batez esanda. Herri handi guztiek, antzina-koetatik hasita, bai Indiakoek, bai Arabiakoek, landu dute hura, poesiarekin batera. Dantza oraindik musikaren gaineratik legoke zenbait erakunde paganorentzat, sorturikoa eta ikus daitekeena, sortugabearen eta ikustezinaren gaineratik leudekeen era berberean. Musikatik ideia piktorikoak sortzen zaizkien haiek bakarrik uler nazakete. Musikak misterioz estaltzen duen guzti hori, agerian azaltzeko ahalmena du dantzak; eta gainera hark gizatasun gehiago erakusten

du, hunkigarriago izatearekin batera. Dantza besoz eta oinez hornituriko poesia da, mugimenduak piztu eta ederturiko materia, airoso eta izugarri, aldi berean. Terpsichore Eguerdiaren musa da; beltzarana irudikatzen zait, oinak gari horietan maiz astindurikoa; haren mugimenduak, kadentzia zorrotzez beteak, estatuagintzarako gai dibinoak lirateke. Baina La Fanfarlo katolikoa, Terpsichore-rekin deman sartzearekin ase ordez, jainko modernoagoen arte guztiei egin zien dei bere laguntzan. Maitagarrien eta ondinen irudiak, lurrun eta axolagabekeriaz urri, nahasten zituzten behelainoek. Shakespeare-ren kapritxoa eta, aldi berean, bufoikeria italiarra izan zen dantzarisa hura.

Gure poeta pozarren zegoen; bere ametsik zaharrenetarikoa begien aurrean zeukala iruditu zitzaion. Gustura dantzan hasiko zatekeen bere gelan, erarik nabarmenenean, eta edozeren kontra burua hautsi ere bai, mozkorbiltzen zuen eromen hartan.

Ondo itxitako zalgurdi baxu batek laster eraman zituen egun hartan poeta eta dantzarisa lehen adierazitako etxetxora. Gure gizon horrek

bere mirespena adierazten zion emakumeari, eskuetan eta oinetan gogo biziz emandako musu isilen bidez. Emakumeak ere oso miresten zuen, ez bakarrik haren xarma indartsuagatik, inoiz horren gizon berezirik eta halako grina elektrikoa zuenik ikusi ez zuelako baizik.

Giroa hilobi bat bezain beltz zegoen, eta hai-zeak, hodeitzar handiak kulunkatuz, eurizko eta kazkabarrezko erasoak ateratzen zizkien hauei. Ekaitz erraldoi batek teiltupeak dardaraz eta kanpandorreak lanturuka zeuzkan. Errekastoak, gutun eztiak eta bezperako orgiak daramatzen hileta-ohantzeak, bere milaka sekretuak ur-isurkietara zeramatzan, indarrez. Heriotza ospitaleen gainera erortzen ari zen alai, eta Chatterton nahiz Savage-tarrak, Saint-Jacques kalekoak, beren behatz izoztuak estutzen ari ziren idazmahaien gainean; eta bitartean, gizonik faltsuena, berekoiena, sentsualena, tripazaleena, gure lagunik izpiritualena, afari on eta mahai eder baten aurrean eseri zen, izadiak begien atsegingarri sorturiko emakumerik ederrenetariko baten laguntzarekin. Samuelek leihoa ireki nahi izan zuen, hiri madarikatu hari begirada garailea

botatzeko asmoz; gero, ondoan zeuzkan gutiziei bere begiak zuzenduz, haietaz gozitzen hasi zen azkar.

Halako gauzen artean berritsu ibiliko zen seguruenik. Bestalde, bere kopeta handiegi hura eta guzti, bere basa-ile, edale-sudur eta guzti, nahikoa ongi zegoela iruditzen zitzaion La Fanfarlori.

Samuel eta Fanfarlo ideia berekoak ziren sukaldaritza eta eliteko gizakientzat behar zen elikadura sistemari dagokionez. Okela nahiz arrain zapore gabeak itsaslamia haren afarietatik kanpo zeuden. Txanpainak gutxitan egiten zion desohore haren mahaiari. Bordeaux famatu eta usaintsuenek bide ematen zioten Auvergneko, Anjou-ko eta Midi-ko ardo-batailoi handien ilarari, edo atzerriko ardoei, alemaniarrei, greziarrei, espainiarrei... Samuelen esanean, egiazko basokada ardo batek mahats beltz sorta baten antza eduki behar zuen, hor edateko bezainbat jateko ere aurki baitzitekeen. La Fanfarlori okela odoletan gustatzen zitzaion, eta ardoa, berriz, zorabiatzen dakien horietakoa. Bestalde, ez zen inoiz mozkortzen. Biek maite zuten biziki trufa.

Trufa, Cyble-k sabel barnean metalik preziatue-
na baino denbora luzeagoan daraman landare
harrigarri hori, agronomoen zientziari —Paracel-
so-ri urreak eginikoaren antzo— desafio egin
dion materia bitxi hori; trufa, antzinako mundua-
ren eta modernoaren arteko muga, Chio kopa
baten aurretik, zifra baten atzean jarritako zero
askok bezainbat eragin duena.

Saltsei, estofatu eta ahokerari dagokionez,
gai sakona baita hau eta zientzia mailako txos-
ten baten antzeko kapitulu bat merezi bailuke,
esan diezazueket bi-biak ados zetoze la horretan
ere, batipat sukaldaritzaren laguntzan izadiaren
botikak oro ekarri beharri buruz: piperrak,
piperrauts ingelesa, azafrana, koloniatako sus-
tiantziak, hauts exotikoak, guztia egiten zitzaien
eder, baita almizklea nahiz intsentsua bera ere.
Kleopatrak, oraindik bizirik egotekotan, idixerrak
edo orkatzarenak Arabia-ko usaingozoekin osatu
nahi izango zituzkeen. Egiatan, penagarria da
gaur egungo *Cordon bleu* direlakoak ez behartu-
rik egotea, lege berezi eta lizunkoi baten bidez,
erabili ohi dituzten elikagaien ezaugarri kimiko-
ak ezagutzera, eta penagarria da halaber, amo-

diozko gai batean esaterako, gorputz osoa zeharkatuko luketen sukaldegaiak, ia su hartzeko modukoak, aurkitzen ez jakitea, hala nola, azido prusikoa edo lurrun bihurtzeko gai den eterra.

Gauza bitxia, ongi bizitzeari buruzko iritzietan zeukaten adostasun horrek, gustu mailako parekotasun horrek, biziki elkartu zituen bi pertsonaiak. Bizitza sentsual mailako adostasun sakon honek, Samuelen hitz eta begirada bakoitzean nabari zitekeenak, asko hunkitu zuen La Fanfarlo. Hizketa hura, zifra bat bezain basatia, edo lore sorta bat bezain usaintsu eta hauskorra, berriketa arraro hura —emakume hark bakarrik ezagutzen baitzion haren sekretua— La Fanfarlo zoragarriaren edertasunak irabazteraino iritsi zen. Bestalde, logela aztertzerakoan ongi ikusi zuen Samuelek, atsegin bizi sakonez, nola bien gustuak eta sentipenak bat zetozen altzari eta dekorazioari zegokionean ere. Cramer-ek sakonki gorrotatzen zituen, eta ene ustez arrazoi osoa zeukan, apartamentu gaietan eta etxebizitzatara erakarritako arkitekturan, marra zuzen luzeak. Gazteluetako egongela handi horiek izutu egiten

naute eta erruki diet gaztelu gizonei, hilerri diruditen logela handi horietan hartu behar baitute amodio, ohe izena ematen zaien hil-mahai handi horietan, besaulki izena hartu ohi duten monumentu handi horietan. Ponpeiako logelak ez dira eskua baino handiagoak, Malabarko itsasertzean aurkitu izan diren hondakin indiarrek sistema bera erakusten digute. Herri jakintsu eta lizunkoi handi hauek ederki ezagutzen zuten gai hau. Sentipen intimoak ez dira eroso biltzen leku oso estuetan ez bada.

La Fanfarloren logela, beraz, oso txikia zen, oso baxua, ukitzeko arriskutsuak ziren gauza bigunez, usaindunez betea; giroak, miasma arraroz beterik, han bertan heriotza bilatzeko gogoia ematen zuen, berogailu gozo baten ondoan bezala. Lanparen argitasuna enkajeekin jolasean zebilen, eta baita ere kolore gogor baina zalan-tzakorrez osaturiko oihalekin. Hemen eta han, horman zintzilik zeuden zenbait pinturari ere —boluptate espainiarrez beteriko pinturari— egiten zion argi: haragi oso zuriak hondo oso beltzen ganean. Logela zoragarri haren sakonetik —paraje gaizto eta otoizleku aldi berean— ikusi

zuen Samuelek beregana etortzen bere bihotze-ko jainkosa, biluztasunezko edertasun zoragarri eta sekretuaren pean.

Zein gizonek ez luke begi aurrean ikusi nahi amesturikoa, bizi beharreko egunen erdiak eman behar izanda ere? Eta bere ametsetako izaki hari —bere irudimenak adoraturiko mamua aurre-aurrean estalkirik gabe argitara ekarriz— arrunkeriarren begietatik babestearren ezarrita-ko estalki guztiak banaka-banaka eror eraziz joatea? Baina, hona non hasten den Samuel oihuka, kapritxo arraro baten menpe, haur gaizki hezia-
ren modera:

— Colombine nahi dut nik! Emaidazu berriz ene Colombine hura! Emaidazu erotu ninduen arratsaldean agertu zitzaidan bezala, bere janz-
kera liluragarriarekin eta bere gerruntze saltaria-
rekin!

La Fanfarlok, hasieran zurturik, berak aukera-
turiko gizon haren harrokeria hartara makurtzea
nahi izan zuen eta Flore-ri hots egin zion; honek
goizeko hirurak zirela adierazi zien, antzokian
dena itxirik egongo zela, atezaina lo, giroa
petral-ekaitzaren orroak aurrera segitzen zuen-;

baina obeditu beharrean aurkitu zen, eta neska-
mea irten egin zen. Orduan, Cramer-ek beste
burutazio batez, txintxarria jo eta, ahots altuan,
honela esan zion:

— Ei, ez ahaztu ezpainetako karmina!

Arrats batez La Fanfarlori bere lagunek
Samuelekiko harremanen hasieraren berri gal-
detu ziotelarik, dantzarisak berak kontatu zien
gertakizun bitxi hori; eta ez nintzen batere harri-
tu; horretan ongi ezagut nezakeen *Orfraies*-en
egilea. Beti egingo zaizkio kuttun bai gorria, bai
zilarzuria, mota orotako urreizunak eta similora.
Zerua eta zuhaitzak berriro margotzeari ekingo
lioke gustura, eta Jainkoak izadiaren eraketa
bere esku utziko balu, izadi hori alferrikaltzea
ere lot lezake.

Samuelengan irudimen bihurritu bat bizi zen,
eta agian honengatik, beregan amodioa, zen-
tzuen arazoa baino gehiago arrazoimenarena
zen. Batez ere edertasunarekiko gose eta mires-
pena zen. Harentzat erreprodukzioa amodioaren
akats bat besterik ez zen, eta haurgintza, berriz,
armiarmaren gaixotasuna. Honela idatzirik zeu-
kan hor nonbait: «Aingeruak hermafroditak eta

antzuak dira». Giza gorputza materia mailako armoniatzat miresten zuen, mugimendua itsatsitako arkitektura edertzat. Eta erabateko materialismo hau ez zegoen idealismo garbienetik hain urrun. Baina, nola, haren iritzian, edertasunean —amodioaren iturri izanik— bi elementu dauden: irudia eta erakarpena, —eta guzti hark irudia besterik ez baitzuen erakusten— berarentzat erakargarriena, gau hartan behintzat, gorria zen.

La Fanfarlorenan, beraz, irudia eta erakarpena biltzen ziren haren ustez. Eta ohe ertzean eseririk, maitatua izan den emakumearen lasaitasun arrakastatsu eta ezaxolatiarekin, eskuak Samuelengan eztiki jarrita, begiratzen zuenean, edertasun haren begietan infinitoa zekusala iruditzen zitzaion, bereak ortzemuga zabaletan galduta zeuzkan bitartean. Bestalde, gizaki hain bereziei gertatu ohi zaien antzera, Samuel askotan bakarrik egon ohi zen bere paradisuari, inongo laguni leku eman gabe; eta, halako batez, arrastaka, ia indarka, bereganatuz gero, emakume hura beti atzetik joango zitzaion. Gainera, Samuel errege zen zeru hartan, amodioa triste

eta gaixotua izaren hasi zitzaion, urdinaren malenkoniaz, errege bakarti bati gerta lekiokkeen antzera.

Hala ere, emakume hura ez zitzaion inoiz aspergarri bilakatu. Ez zen inoiz saiatu frogatzen, amodiozko txokotik aldeginenez, sentitzen den poztasun norberekoi hori, goizeko hozkirrian espaloitik poliki-poliki paseatuz, zigarroa ahoan, eskuak poltsikotan, gure nobelagile handiak non baitioen bezala.

Bihotzaren faltan, Samuelek adimen zintzoa zeukan eta, esker txarraren ordeaz, beregan poztasunak atsegin gozoa sortu zuen, ameskizun sentsuala, jende arruntak amodioaz ulertzen duen baino baliotsuagoa agian. Gainera, La Fanfarlok aukera aprobetxatu zuen eta bere ferekarik trebeenak eskaini zizkion, gizon hark pena merezi zuela ohartuz; honen mintzairara —mistikoa eta lizunkeriaz zein gordinkeriaz josia aldi berean ohituz joan zen. Gutxienez, berria izatearen erakarpena zeukan emakume harentzat.

* * *

Dantzarisaren amodio berriak eman zuen zeresanik franko. Askotan funtzioa bertan behera utzi behar izan zuten; entsaioetara ere joan gabe geratzen zen maiz. Asko ziren Samuelen bekaitz.

Arratsalde batez, kasualitatez edo Cosmelly jaunaren asperragatik edo honen emaztearen trikimailuz osaturiko sare katramilatsuagatik, kontua da gizon hori suaren inguruan geratua zela; ezer esatekorik ez, eta isiltzekorik, ordea, badagoenetan, senar-emazteengan sortu ohi diren isilune luze horietako baten ondoren, munduko terik onena teontzi umil eta zartatuan —agian izebaren gaztelutik ekarritako hartan oraindik— atera ondoren, hamar urte lehenago modan zegoen pieza baten zatiak pianoan kantatu ondoren, emakumeak, loa galarazten zion izaki hura beldurtu nahi ezik eta berarentzat atsegin izan nahirik, ahots ezti batez adierazi zion, bada, garai batean min handia izan zuela beragatik, negar ugari egina zuela, bere buruagatik baino gehiago, eta, bere erabateko etsipen obedikor eta debotuan, gizon hark bere emazteagandik eskatzen ez zuen maitasuna kanpoan

gutxienez aurki zezan desio bizia eduki zuela; gehiago sufritu zuela hura erraturik ikusteagatik, bere burua babesgabe aurkitzeagatik baino; eta guzti horretan emakumeak berak erru handia izan zuela, senarra arriskuaz jakinaren gainean ez jartzeagatik, emazte eztiaren betebeharrak ahaztuak baitzituen; bestalde, zauri odoltsu hura ixteko prest zegoela, bien burugabekeria hura berak bakarrik ordainduz, eta abar; hitz batez, bihozberatasunak eman ohi duen zuhurtasunez botatako adierazpenek iradoki dezaketen ezein gauza esan zion. Emakumea negarrez ari zen, eta benetan gainera. Malkoek eta erresuminak edertarazitako haren aurpegia suaren errainuek argitzen zuten.

Cosmelly jauna, hitz bat ere esan gabe, irten egin zen. Beren erruetan harrapatuak izan ohi diren gizonak ez diote barkamenari beren barneko arraren eskaintzarik egin nahi izaten. Handik La Fanfarloren etxera joanda, han desorden aztarnak aurkituko zituen dudarik gabe, zigarro muturrak eta egunkarietako artikuluak.

Goiz batez, Samuel La Fanfarloren ahots berritsuaz esnatua izan zen, eta poliki-poliki jaso zuen burua, erabiltzen zuen burkotxotik nekaturta, eta gutun bat eman zion irakur zezan: «Eske-rarak, Monsieur, eskerrak mila bider; nire zoriona eta onarpena mundu hobean kontutan hartuko dizkizute. Horrela dena ongi dago. Nire senarra zure eskutik neureganatu eta gaur arratsean bertan daramat gure C*** lurretara, zuri zor dizkizudan osasuna eta bizia han aurkituko baitituz. Har ezazu, Monsieur, betiko adiskidetasunaren promesa. Gizon zintzoegitza jo izan zaituz beti beste edozein ordainen parean adiskidetasuna nahiago ez izateko».

Samuel, enkajetan murgildurik, ikus daitekeen sorbaldarik eder eta freskoenaren kontra jarrita, pozik sentitu zen nolabait, eta pena pixka bat ere hartu zuen, bere oroimeneko azpijokoaren elementu guztiak, berak irtenbidera eramandakoak, bildu zituenean; baina bere buruari haxe esan zion lasai-lasai: «Gure grinak erabat benetakoak ote dira? Nork jakin ziurtasunez

bakoitzak nahi duena, eta nork ezagutu zehazki norbere bihotzaren barometroa?».

— Zertan ari zara marmarrean? Zer da hori? Ikusi egin nahi dut —esan zuen La Fanfarlok.

— A! Ezer ez, —bota zuen Samuelek emakume zintzo baten gutuna, zuk maiteko ninduzula agindu nion emakume batena.

— Ordainduko didazu hau! —erantzun zion ahapeka.

La Fanfarlok Samuel maite izango zuen ziur aski, baina arima gutxik ezagutzen duen maitasunez, barruan gorroto pittin bat gordez. Samuel, berriz, pekatua egin zuen arrazoi berberagatik izan zen zigortua. Askotan disimulatu zuen bere grina; azkenean onartu egin behar izan zuen, baina amodio hura ez zen izan inoiz lasaia, patxadakoa, mardula, neska zintzoek sor erazten duten horietakoa; amodio hura ikaragarria izan zen, atsekabetsua eta lotsagarria, gortezaleen amodio gaizkitua. Samuelek jeloskortasunaren tortura guztiak ezagutu zituen, eta, bestalde, berezkoa den gaixotasun sendaezinaz konturatzeak ekarri ohi digun tristura eta behe-

rakada ere bai, hots, konkubinatoa deituriko ezkontza oker horren izugarrikeria guztiak.

Dantzarisa, berriz, egunetik egunera gizenagotzen ari da; edertasun lodia bilakatu da, garbia, gizona, gorritua, ministerioko amorante baten antzekoa. Egun hauetako batean bere Bazkoa ospatuko du elizara ogi bedeinkatua eramanez. Garai honetan beharbada, Samuel, penaz hilda, *clou sous la lame* egongo da, bere garai onenetan esan ohi zuen bezala, eta La Fanfarlok, bere kanonesa itxurarekin, beharbada oinordeko aberatsen bat bereganatuko du.

Bitartean, haurrak egiten ikasten ari da: bikiak erditu ditu zorionez. Samuelek ere lau zientzia-liburu erditu ditu: bata, lau ebanjelariei buruzkoa, bestea, koloreen sinbolismoaren gainean, iragarki sistema berri bati buruzko memoria bat, eta beste laugarren bat ere bai, titulua gogoan ez badaukat ere. Laugarren hau hizjarioz, indarrez eta bitxikeriaz mukurua egotea da ikaragarriena; honako epigrafe hau jartzeko aurpegia izan du Samuelek: *Auri sacra fames*. La Fanfarlok bere maitalea *Institut*-eko kide izatea

nahi du, eta ministeritzari ziztaka ari da gurutzea eman diezaioten.

Orfraieseko kantari gaixoa! Manuela Monteverde gaixoa! Horren behera erortzea ere! Orain gutxi jakin dut egunkari sozialista bat sortu duela eta politikan aritu nahi duela. Adimen gaiztoa! M. Nisard ohoretsuak dioen bezala.

Literaturgile gazteentzako kontseiluak

Hemen irakurtzera zoazen arauak esperientziaren ondorio dira; esperientziak berekin dakar nolabaiteko akats multzoa; denok egiten ditugu —nahiz gutxi, nahiz asko, igual zaio— eta, hori dela eta, nire esperientzia zuetako bakoitzarengan egiaztatua izatea espero dut.

Adierazitako arauok ez dira *vade mecum* bat baizik, eta ez dute, kortesia zintzo eta inuzente izatetik kanpo, erabilgarritasun gehiagorik. Zerbitzu handia! Imagina ezazue bihotz adimentsu eta zintzodun Warens batek idatziriko kortesia kodigoa, ama batek erakutsiriko ongi jazteko artea. Era berean, literaturgile gazteei zuzenduriko arau hauei anaitasunezko kuttuntasun osoa itsatsi nahi nieke.

Suerte ona ala txarra hasieran

Idazle gazteek, kide bati buruz hitz eginez, bekaitzezko doinuz diotenean, «hasiera ederra, suertea izan dik!», ez zaie bururatzen hasiera

guztien aurrean beti hamaika hasiera egon dela, eta hura hauen ondorio dela.

Nik ez dakit, ospeei buruz, noizbait izan den arrakastaren tximista hori; aitzitik, nire ustez, arrakasta da, idazlearen indarraren arabera, proportzio aritmetikoan, lehenagoko lorpenen ondorioa, ikustezinak badira ere begirada arruntarentzat askotan. Badago arrakastaren progresio mantso eta molekularrik, baina mirarizko eta bat-bateko sorpenik ez.

«Suerte txarra daukat» diotenek, oraindik behar hainbat arrakasta ezkutu lortu ez dutelako da, eta guzti hau ez dakitelako.

Giza nahimenaren inguruan mila baldintza ematen da, azpian arrazoi zilegiak dauzkatelarik; nahimenari itxura egiten dion zirkunferentzia osatzen dute. Baina biribil hori mugikorra, bizia, aldakorra da, eta egunero, segunduoro, aldatzen ari da bai bere zirkulua, bai bere erdigunea. Horren barnean dauden giza nahimenak uneoro elkarrenganako jokoa aldatuz doaz, eta hori da askatasuna.

Libertatea eta fatalitatea elkarren kontra-kontran daude. Ondo-ondotik nahiz urrunetik begiratuta, nahimen bat bera dira.

Horregatik, ez dago suerte txarrik. Suerte txarra baldin badaukazu, zerbait falta zaizu, zerbait hori ezagutu beharra daukazu, inguruko nahimenaren jokoak ezagutu beharra dauzkazu, zirkunferentzia errazago mugitzen ikas dezazun.

Adibide bat milaren artean. Maite eta estimatzen ditudan zenbaitzuk, gaur ezagunak diren idazle batzuen kontra —Eugène Sue, Paul Féval— benetako logogrifoak bota zituzten; baina horien talentua, bere arinean, ez da gutxiagotu horregatik, eta nire lagunen haserrea ezabatu egin da —edo ezabatuz doa— denbora galdua baita, hots, munduan gutxien balio deza-keena. Arazoa ez da bihotzetik edo itxuratik datorren literatura modan dagoena baino hobea ote den. Diodana egia da, niretzat gutxienez. Baina ez da erdizkako egia besterik izango zure generoaren barnean Eugène Sue-k berean adinako talentua ezarri nahi duzula erakusten ez duzun bitartean. Argi itzazu bitarteko berriak arreta berberaz, zabaldu kontrako bidetik indar

berdina edo handiagoa; bikoiztu, hirukoiztu edo lauhoiztu dosia, kontzentrazio berdinerara iritsi arte, eta ez duzu niri burgesa deitzeko eskubiderik izango, zeren burgesa zeure ondoan egongo baita. Ordurarte, *vae victis!*, ez indarraz aparte beste egiarik, hura baita justiziarik gorengoena.

Ordainsariak

Gauza bat, ederrena izanda ere, haren edertasuna frogatzen ez den bitartean, hainbeste metro altueran eta hainbeste zabaleran da bati-pat. Era berean, literatura, materialik neurgaitzena da, orri batzuk betetzea, lehen-lehenik. Eta arkitektura literarioak, izen hori bete-betean dagokiolarik, saldu egin behar du derrigorrez.

Badira gazteak hau diotenak: «Honek hain gutxi balio duenez, zertarako horrenbeste kezkatu?» Hauek obrarik onena osa zezaketen behar-bada; kasu honetan, orainaren beharkizunak, izadiaren legeak, bakarrik ostuko zien hori. Horrela mintzatuz, ordea, beren buruari egin diote lapurreta. Gaizki ordainduta ere ohorea behintzat edukiko zuketena. Orain, aldiz, ez ordainsari ez ohore geratu dira.

Gai honetaz esan dezakedan guztia sententzia goreneko batean laburbilduko dut, filosofo, historialari eta negoziogizon guztien gogoetagarri: sentipen onez bakarrik lortzen da fortuna.

Honela ari direnak, «zertarako leher egin lanean horren gutxiatik?», gero, ohoreak iristen direnean, beren liburuak, berrehun franko folletín bakoitza, saldu nahi dituzte, eta atzera bidaltzen badituzte, hurrengo egunean ehun frankotan eskainiz itzuliko dira.

Gizon ezaguerakoak hau esango du: «Nik uste, honek honenbeste balio du, talentorik badaukat eta; baina, zerbaitetan atzera jo behar badut, jo egingo dut, zuen artean egoteko ohoreagatik».

Abegitasunak eta ezinikusiak

Amodioan, literaturan bezala, abegitasunak ez du nahimenarekin zerikusirik; hala ere beharrezkoa da biak egiaztatzea, arrazoiarekin egin ohi den antzera.

Egiazko abegitasunak ederrak dira, biz bat egiten baitute; zurikeriazkoak, berriz, baztergarriak dira, bat baitira, hasierako indiferentzia

kenduz; honek gorrotoak baino gehiago balio du halere, atzipe eta desilusiotik baitator, izan ere gorrotoa.

Horregatik miresten eta onartzen dut laguntasuna, pentsakizun eta sentipenezko harremanetan oinarriturik dagoen bitartean. Izadiaren agerpen sanoenatarikoa da, esaera zahar haren aplikazio anitzen arteko bat: batasunak egiten du indarra.

Egiatasuna eta tolesgabetasun berberak agindu behar du ezinikusietan. Hala ere, badira pertsonak, gorroto bezainbat mirespen sortzen dutenak, burugabekeriaz. Hau ez da batere zuhurra; honela, batere arrazoirik eta probetxurik gabe, etsaiak egiten dira. Oker bidalitako kolpe batek ez du zauri gutxiago egiten arerioaren bihotzean, lekukoren bat ere bide batez zauriturik gerta litekeelarik gainera.

Halako batez, eskrima ikastaldi batean, hartzekodun bat etorri zitzaidan enbarazu egitera; eskailetan behera jarraitu nintzaion atzetik floretearekin kolpeak tiraz. Itzuli nintzenean, arma irakasleak, arnaskada batez lurrera bota nintzaiken erraldoi horietako bat, honela esan zidan:

«Bai eskuzabal banatzen duzun zeure ezinikusia!
Poeta izanda! Filosofoa! Tira, zer esango dute!». Nik bi asaltoren denbora galdua nuen, nekatuta nengoen, lotsatuta, eta gizon baten arbuioa neukan —zorrra kobratzera etorri zitzaidanarena— eta min handirik ez nion egin.

Bai noski, gorrotoa likore ederra da, Borgiatarrena baino pozoi garestiagoa, gure odolarekin eginga baitago, gure osasunarekin, gure ametsekin eta gure maitasunaren hirutatik birekin. Gorrotoarekin zekena izatea beharrezkoa zaigu.

Ereintagea

Ereintagea, akatsaren lagun egin direnen kontra bakarrik erabili behar da. Baldin eta indartsua bazina, ez lizuke mereziko beste gizon indartsu bati eraso egiteak; erakuts itzazu zenbait puntuekiko desadostasunak, eta bestela kasu batzutan zuetakoa egingo da.

Bi eratara praktikatzen da *ereintagea*: lerro zuzenez ala okerrez, biderik motzena lehenengo izan ohi delarik.

Marra okerraren adibide aski J. Janin-en folletinetan aurki dezakezu. Marra okerrak galeria

diberti dezake, baina ez zaitu jakintsuagoa egingo.

Lerro zuzena arrakastaz praktikatzen da, oraindik ere, zenbait kazetari ingelesen eskutik: Parisen ez da jadanik erabiltzen. Granier de Cassagnac jaunari berari ere badirudi ahaztu egin zaiola. Honela esan behar litzateke: «X jauna gizon desohoretsua da eta mokoloa gainera; ondoren, esandakoa frogatzera noa», eta gero, noski, frogatu: *primo*, *secundo*, *tertio*, eta abar. Baliabide hau norbere arrazoian fede handia eta ukabila sendoa daukanari biziki gomendatzen diot.

Huts egindako *ereintagea* istripu tamalgarria da: atzera bueltan datorren gezia da, edo gutxie-
nez, irteterakoan eskua mozten dizuna, errebo-
tean erail zaitzakeen bala.

Konposizio metodoak

Gaur egun beharrezkoa da asko produzitzea; presaka ibili behar da, gauzak azkar eta ondo eginez. Beharrezko da, beraz, kolpeak oro bere jomugara iristea, alferrikako mugimendu bat ere egiteke.

Abantaran idazteko, lehendik ondo pentsatzea derrigorrezkoa da, gaia norberarekin paseatzera eramatea bezala, eta komunera, edo jate txera, edo maitalearen etxera ere.

Eugène Delacroix-ek honela esan zidan behin: «Arte hain da ideala eta iheskorra, non lanabesak ez baitira inoiz behar bezain egokiak, eta bitartekoak behar bezain ugariak» Literaturarekin ere horixe gertatzen da; halere, ez naiz edonolako zirriborroen aldekoa: gogoeten ispi-luari enbarazu egiten baitiote.

Gizon adeitsu eta zentzudunetariko zenbaitzuk —Edouard Ouliard, adibidez— nahiko paper betez hasten dira. Zapia estaltzea deitzen diote honi. Joera honen helburua da ezer ez galtzea. Ondorioa oso ona da, denborari eta talentuari dagokionez gehiegikeriatan ez eroriz gero. Oihal bat estaltzea ez da kolorez bete-bete egitea; barniaz galdzea baizik; masak osatzea, tonu arin eta gardenen bidez. Zapiak osaturik egon behar du —izpirituan— idazleak izenburua jartzearen lanari heltzen dionerako.

Esan ohi da Balzac-ek bere kopia eta frogak era harrigarri eta desordenatuan kargatzen dituela.

Nobela bat, orduan, sorketa une desberdinetatik igarotzen da, haietan obra osoa sakabanutuz, ez bakarrik esaldia. Dударik gabe, lanerako metodo oker honek ematen dio bere estiloari, maiz, horrelako nahaste hori, estropozuka balebil bezala, borroiak eginez. Hau da, izan ere, istorio narratzaile handi horren akats bakarra.

Eguneroko lana eta inspirazioa

Orgia ez da jadanik etorriaren ahizpa; ahaide lizun horri uko egin diogu. Zenbait izaera ederrren sutze azkarra eta ondorengo ahulezia, aurreritzi gorrotagarri horren lekuko dira.

Idazle emankorrak elikadura indartsua eta etengabea behar du soilik. Etorria eguneroko lanaren ondorioa besterik ez da. Bi gauza kontrajarri hauek ez diote bata besteari izadiko beste edozein kontrario parek baino gehiago kentzen. Etorriak ere obeditu egiten du, goseak bezala, digestioak bezala, loak bezala. Badago, bai, izpirituan halako mekanika zerutiar bat, eta horre-

taz inork ez du lotsatu behar, ahalik eta probe-
txurik handiena atera baizik, medikuek gorpu-
tzaren mekanikari egin ohi dioten bezala. Nor-
baitek biharko egunari begira egon nahi badu
egoskorki, eguneroko lana lagungarri egingo
zaio bere inspirazioari; idazkera irakurgarri
batek pentsakera argitzen duen eran; pentsake-
ra lasai eta indartsuak, idatzitakoa irakurgarri
egiten duen bezala. Joana da idazmolde txarren
garaia.

Poesiaz

Poesia arrakastaz egin dutenei inoiz ez uztea gomendatzen diet. Saririk handiena eman ohi duten arteetarikoa duzu, baina interesak oso berandu eskaintzen dituen kontu bat bezalakoa, nahiz interes horiek oso handiak izan gero.

Fidakaitz direnei, desafio egiten diet editore bat hondoratu duten bertso on batzuk aipa die-zazkidaten.

Moralaren aldetik, poesiak halako desberdin-tasuna ezartzen du lehen mailako eta bigarren mailako izpirituen artean, non publikoak, burge-sena izanik ere, ezin baitio haren eragin despoti-

koari aldegin. Ezagutzen dut zenbait pertsona Théophile Gautier-en folletinik —hainbat aldiz erdipurdikoak— irakurriko ez lukeena, non eta *Heriotzaren komedia* idatzi zuelako ez balitz. Ezbairik gabe, ez dira jabetzen obra honen bertute oroz, baina badakite egilea poeta dela.

Zertaz harritu ordea, badakigularik, edozein gizon sanok bi egun janik gabe pasa dezakeela, baina poesiarik gabe ezta bat bakarrik ere?

Beharkizun indartsuenei erantzuten dien artea beti izango da goraipatua.

Hartzekodunak

Gogoratuko duzue, dudarik gabe, *Kean*, *ou Dsordre et Gnie* izeneko obra. Jeinua desordenaren ondoan ibili izan dela esatean, jeinu hori ikaragarri indartsua dela besterik ez digu adierazten. Zoritxarrez, titulu honek gazte askorentzat bereiztasun bat baino gehiago beharkizuna suposatzen zuen.

Ez dut uste Goetheri hartzekodunik batere atzetik ibili zitzaionik; Hoffmann bera, Hofmann desordenatu hura, beti behar larriek eraginda, hartzekodunez libratzeko desiatzen zegoen; eta

bizitza luzeago batek bere jeinuari indar ederra eragiteko aukera eman behar zionean hil zen.

Ez sekula izan hartzekodunik; nahi baduzue, horren itxura egin. Hau da eman diezazuekidan aholkurik onena.

Maitaleak

Ordenu moral nahiz psikikoa gobernatzeko duen kontrako legea zaindu nahi baldin badut, letragizonentzat arriskugarriak diren emakumeak seinalatzera beharturik nago: emakume zintzoa, sasijakintsua eta antzezlaria. Emakume zintzoa, bi gizonena delako halabeharrez, eta arima poetikoarentzat erdipurdizko bazka delako. Sasijakintsua, emakume frakasatua delako. Antzezlaria, literaturaz igurtzia dagoelako eta jergaz hitz egiten duelako; beste era batera esanda: emakume osoa ez delako, hitz horrek duen esanahi betean; entzulegoa maiteago du amodioa baino.

Imajina al dezakezue emazteaz maiteminduriko poeta, hark trabestiaren papera nola jokatzen duen ikustera beharturik? Antzokia erreko lukeela iruditzen zait.

Imajina al dezakezu gizon hori berbera talenturik ez duen emakume batentzat obra bat idazten?

Eta imajina al dezakezue, halaber, antzokian zegoen poeta hura bera, izerditan, plateako entzulegoari epigramatan ordainduz bere maitari eginiko irainak; kontutan hartzen badugu ekialdeko gizonek Parisa Zuzenbide ikasketak egitera etorri aurretik hiru giltza pean gordetzen dituztela beren maiteak?

Zenbait momentutan literaturgile guztiek sentitzen baitute literaturarekiko izuikara, bada, nik ez dut ontzat ematen horientzat —arima libre eta harro horientzat, zazpigarren egunean beti atsedean hartu beharra izaten duten izpiritu makal horientzat— bi motatako emakumea besterik: edo oso gaztea, edo ergela: amodioa ala eltzea. Senideok, adierazi beharrik ba ote daukat horren zergatia?